



Izan Ahobizi ala izan Belarriprest, Durangaldeko herritarrek mingaina euskaraz dantzaten dabilta egunotan. Euskaraldiak bide erdia egin du eta egitasmoan parte hartzen dabilta herritarrekin batu da ANBOTO. Irudian, Zaldibarko Irantzu ile-apaindegiko Irantzu Miguel arduraduna eta Aitor Zabala bezeroa. Ahobizi dira biak. • 2

Gehiago gehiagorekin gehiagotan



Indarkeria matxistaren aurkako oihua

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunak askotariko irudiak utzi ditu Durangaldean. Instituzioek eta herri mugimenduek indarkeria matxista salatu dute herririk herri. • 6



“Kutsatuen erdiek baino gehiagok ez dute positibo bategaz inongo kontakturik definituta”

Ugo Mayor Martínez

Ikerbasqueko eta EHUko ikerlaria • 5

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ
Eitua industriagunea, 71C
Tel.: 946 824 550
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net

GERNIKA
Goiko Ibarra, 26
Tel.: 946 271 310





ROTABATOREA

SASI-GARBITZEKO MAKINA HORZDUNA

ARE-MAKINA

MINIHONDEATZAILEA 1000 KG ZABALERA 0,80

BELDAR-MINI DUMPERRA



Euskaraldiaren aldeko horma irudi bat, Zornotzan.

Mingainak dantza egiten hasita daude

Euskaraldiak bide erdia egin du. Ondorioak ateratzeko goizegi izan arren, izena emateko epea luzatu izanak eragin positiboa izan du. Durangoko kasua da horren adibide

EUSKARALDIA • EKAITZ HERRERA

Bai. Belarriak, bai. Ahoak ere bai. Baina batez ere, mingainak. Horietxe dabilta egunotan dantzan. Eta bistakoa denez, euskaraz. Euskaraldiak bide erdia egin du Durangaldean. Abenduaren 4an amaituko da hizkuntza ohiturak aldatzeko erronka. Eta oraindino ondorioak ateratzeko goizegi izan arren, hasi dira igartzen lehenengo zantzuak eskualdean.

Izan ere, izena emateko epea hasieran aurreikusitakoa baino gehiago luzatzeak isla izan du eskualdeko batzordeetan. Du-

rangokoan, adibidez. Euskaraldiaren bezperetan, 2.200 bueltan ziren izen emateak, baina epea azaroaren 24ra handitzeagaz batera 2.912ra igo zuen kopuruak. "Izena eman dutenen %81 Ahobizi dira eta %19 Belarriprest. Generoari dagokionez, emakumeen parte hartzea nabariagoa da. Parte hartzaileen %64 emakumeak dira, %35 gizonezkoak eta %1 genero binariotik kanpokoa", azaldu dute Durangoko Euskaraldiko kideek. Izen ematerik gehienak 36tik 50 urtera bitarteko herritarrenak izan direla esan dute.

Ari direnak



MARIAN MARTÍNEZ

BELARRIPREST. Abadiño

Belarriprest moduan eman du izena, baina bere frutadendara doanak urte osoan ikusiko du Belarriprest ikurra atean ipinita. Marian Martínez Muñoz (Elgoibar, 1961) Traña-Matiena auzoko fruta eta barazki saltzaileetarikoa bat da. Bezeroei eskerrak euskara asko hobetu duela dio. Beragaz euskaraz aritzera deitu die herritarrei.

Belarriprest edo Ahobizi. Zuk Belarriprest izatea aukeratu duzu.

Bai, izan ere, Belarriprest naiz. Ulertu bai, ulertzen dut. Baina berba egitea gehiago kostatzen zait. Fruta-dendan euskaraz aritzen naiz. Hemengo gauzekin moldatzen naiz. *Kaixo, zelan*, fruta izenekin eta horrelakoekin. Baina elkarrizketak beste eremu batean izaterakoan, modu sakonagoan, adibidez, gehiago kostatzen zait.

Atean Belarriprest pegatina duzu urte osoan. Eta mostroaren atzean beti dago 'Euskarak 365 egun' kartela. Euskaraldiko banderola ere ez zaizu falta. Ikusten da euskara garrantzitsua dela zuretzat.

Bai. Elgoibarren hazitakoa naiz. Gure sasoiaren debekatura zegoen euskara, eta gaztelaniaz egin behar izan nituen ikasketak. Gerora, eskola partikularrak hartu nituen. Apurka-apurka alabagaz eta herritarrekin euskaraz berba egiten hasi nintzen.

Marianen dendan, Traña-Matiena auzoan, Abadiñon, posible da euskaraz bizitzea?

Bai, bai. Traña-Matienan euskaldun asko dago. Eta dendara Zelaietako jendea ere etortzen da. Hangoek gehiago egiten dute euskaraz. Hona erostera etortzen direnei niri euskaraz egiteko eskatuko nieke. Denda oso inportantea izan da niretzat euskara ikasteko. Eskolan baino gehiago ikasi dut dendan.



IRANTZU MIGUEL

AHOBIZI. Zaldibar

Irantzu Miguel (Zaldibar, 1983) izen bereko ile-apaindegiko arduraduna da. Bere negozioa Arigunea denez, euskararen arnagune txiki bat topatu daiteke bertan. Egunotan, Ahobizi txapa paparrean duela dabil lanean. Baina ez da bakarra. Bere lankideak ere Belarriprest txapa duela lan egiten du.

Paparrean daramazun txapak ondotoxoa erakusten du. Aurtengo Euskaraldian Ahobizi zara.

Bai. Txikitatik jaso dut euskara etxean. Baita eskolan ere.

Eguneroko hizkuntza duzu euskara?

Biak erabiltzen ditut. Lantokira datozen bezero batzuk euskaldunak dira, baina beste batzuk ez. Eta etxean ere aldatu egiten da kontua. Senarragaz batuan egiten dut. Mendebaldeko euskara ez du guztiz kontrolatzen eta euskara biak tartekatzen ditugu.

Euskaraldia hasi denetik, igarri duzu erabileraren goranzko joerarik?

Kalean ikusten dut jendea txapagaz. Hona ere txapa ipinita etortzen da jendea. Ikusten dute txapa aldean dudala eta kontuan hartzen dute, zelanbait. Askok galdetzen dute ea zelan funtzionatzen duen honek guztiak, zer egin behar den. Ahalegina egiten dute. Belarriprestak ahalegintzen direla ikusten dut. Orain urte biko Euskaraldian, Zaldibarren euskara gehiago entzuten zela igarri genuen egitasmoak iraun zuen 15 egunetan.

Eta aurtengoan?

Jendea euskaraz aritzeko ahalegina egiten dabilela ikusten nabil. Gazteriarengan ikusi dut hori batez ere. Gainera, euretariko asko euskara ikasten hasi dira. Nagusiekin desberdina da, baina gazteekin igarri dut aldaketa. Ahalegina egitea eskatuko nieke herritarrei.



SAIOA GARCÍA

BELARRIPREST. Berriz

Jaiotzez zaldibartarra izan arren, Saioa Garciak (Zaldibar, 1983) ia hamarkada bi daramatza Berrizen bizitzen. Bertan antolatu du bizimodua eta bertan dabil hazten 8 urteko alaba. Orain urte biko Euskaraldian Ahobizi izan zen eta Belarriprest izatea aukeratu du aurtan.

Orain urte bi Ahobizi izan zinen, baina aurtan Belarriprest. Zergaitik?

Jendeak euskaraz egin diezadan bultzatzeko. Ni euskalduna naiz, txikitatik, baina iruditzen zait jendeari konfiantza falta zaiola euskaraz aritzeko. Adierazi gura dudana da nire belarriak prest daudela euskara entzuteko.

Zelako osasuna du euskarak zure ingurunean?

Gehienetan euskaraz ari naiz, bikotekideagaz salbu. Euskara ulertu ulertzen du, baina ez daki ondo. Bestalde, Berrizen euskara gutxi entzuten delakoan nago. Alabagaz ere ikusten dut hori. Bederatzi urte egiteko bidean dago eta konturatzen naiz erdarara jotzen duela batzuetan. Nigana zuzentzerakoan ere bai. Iruditzen zait badagoela adin tarte bat euskara gutxiago egiteko joera hartu duena. Gazteekin gertatzen da hori. Baina horrek buelta izan ohi du. Niri ere gertatu zitzaidan. Gaztetan euskara gutxiago egiteko joera nuen eta gerora euskara berreskuratu dut.

Zer esango zenieke berriztarrei?

Baten batek kaletik txapagaz ikusten banau, nigana euskaraz etortzea gura dut. Euskaraz egin behar dugu. Ezin dugu galdu. Lagunarte euskaldun batean erdaraz aritzeko ohitura errotzen denean, gero oso zaila da ohitura horri buelta ematea. Euskara ez dakienagaz ez dago erdaraz egitea baino beste erremediorik. Baina euskaldunari euskaraz egin behar diogu.

Zornotzako aurrekontuek ongizate soziala lehenetsiko dute, inbertsioak bigarren maila batera eramanda

Udala osatzen duten talde politiko guztiek onartu dituzte 2021erako aurrekontuak, aho batez. Gizarte larrialdietarako laguntzak, adibidez, 300.000 euroan handituko dira



Joan zen asteko osoko bilkura.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

"Ez da inbertsioak egiteko momentua. Ez dakigu koronabirusak zein bide hartuko duen eta zein ondorio ekarriko dituen. Zuhur jokatzea dagokigu. Lehenengo, ongizatea bermatzea dagokigu. Ez ditugu inbertsioak ahaztuko, baina geroago heldu beharko diegu horiei". Beharbada Andoni Agirrebeitia alkatearen adierazpen horiek

EAJ: "Gizarte kohesioa eta suspertze ekonomikoa izango dira lehentasunak"

koa izango dira datorren urteko lehentasunak". Hori dela-eta, gizarte larrialdietarako laguntzak, adibidez, 300.000 euroan igoko dira aurtengoan aldean. "Ostalaritza eta lehen sektorea ere izango dira lehentasuna. Herriko ehundura asoziatiboari, elkarteei, kulturgingintzari lagunduko diegu. Azkenik, inbertsioak ere egingo ditugu auzoetan", gaineratu zuen Martiarenak.

2021ekoak aurtengoak baino aurrekontu apur bat baxuagoak izango dira: 29.020.000 eurokoak, aurtengoak baino %3,64 baxuagoak. Udalkutxatik sartutako diru kantitatea apaltzeak ekarri du jaitiera hori.

Adostasun osoa

Talde politiko guztiek egin dute bat, denek alde, eta ez da ohiko irudia. Ez behintzat aurrekontuak direla kontuan hartuta. Oposizioko talde politikoek honako azalpen hauek eman zituzte: "Guk

egindako proposamen batzuek isla izan dute aurrekontuetan, gizarte larrialdietarako laguntzen partida handitzeak, adibidez. Ez dira guk gura genituzkeen aurrekontuak, baina urte hau eta datorrena bereziak izango direnez, bat eginda egon behar dugula iruditzen zaigu", aipatu zuen EH Bilduko Ander Uriartek.

EH Bildu: "Ez dira gure aurrekontuak, baina urte berezia denez bat eginda egon behar dugu"

Alba Gutierrezen esanetan, "ezinbestekoa" izan da "gizarte ekintzako diru partidak eta enpleguari lotutakoak ez murriztea". Alicia Hernández zinegotzi sozialistaren esanetan, aurrekontuek "ez dute inor atzean utzi gura".

laburbildu dezakete Zornotzako Udalak datorren urtean izango duen plangintza.

Miren Martiarena Ogasun zinegotziaren esanetan, "gizarte kohesioa eta suspertze ekonomi-

Zornotzako Udalak diruz lagunduko die ostalariei eta sektorekoak diren enpresei

1.000 eurogaz lagunduko die bat, bi edo hiru behargin dituzten tabernei. 1.500egaz langile gehiago dituztenei

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak ezohiko diru laguntzak onartu ditu herriko ostalarientzat eta sektorearen osagarri diren beharginentzat. Establezimenduak bat, bi edo hiru behargin baditu, 1.000 euroko diru laguntza jasoko du. Hiru behargin baino gehiago izanez

gero, 1.500ekoa. Erabakiari lotuta doan beste neurri bat terrazai loturikoa da. Udalak ez du tasarik kobratuko terraza ipintzeagaitik. Azkenik, udalak beste era batera kobratuko ditu ostalaritzako zabor-tasak, testuinguru honetan "jarduerarik barik" kategorian daudela interpretatuta.



Zornotzako kale bat.

Udal idazkari berria izendatu dute lurretan

EH Bilduk nabarmendu du "arrazoi sendoak" falta direla martxotik hona idazkaria izan dena kargutik kentzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Bizkaiko Aldundiak onartu egin du alkateak egindako eskaria eta estatuko gaikuntza duen udal idazkari berria izendatu du, Zornotzako Udalean betetzen duen eginkizunagaz metatuta jardun dezan. Izendapenak martxotik hona jardun duen bitarteko idazkaria kargutik kentzea ekarri du. Azken horrek ustezko prebarikazioa egotzi dio Iñaki Totorikaguena alkateari, eta aurretik zegoen langilearen aurkako lan jazarpena behin-behinekoko kontu-hartzaileari.

Totorikaguenak berretsi du "arrazoi objektiboak" tarteko egin ziola Aldundiari idazkaria aldatzeko eskaria, irailean. Barne-antolamendua, herriaren ezagutza maila eta karguan izandako esperientzia arrazoitu ditu; eta gaineratu du aurretik ere —zortzi urtean— Iurretan idazkari jardundakoa dela orain izendatu berria. Prozedura "berme guztiekin" egin dela nabarmendu du, Zornotzako Udalaren eta bertako idazkariaren adostasunagaz. Idazkari berriak

%30eko lanaldi metaketagaz jardungo du, lanpostua erabaki arte.

EH Bilduk "lanpostu publiko baten kargu-uztea justifikatzeko kuantifikatu daitezkeen arrazoi sendoen falta" igarri du. Salatu dutenez, "ezer baino lehen, bitarteko idazkariari borondatez karguari uko egitea eskatu zitzaion eta horri uko egin ondoren etorri da dena". Oposiziokoek (EH Bildu eta PSE-EE) esan dute eskaria egin zutela kargutik kentzeko arrazoiak jakiteko, baina ez dietela argibiderik eman.

Salaketa alkatearen kontra

Durangoko epaitegian Iurretako alkatearen kontra zabaldutako diligentsia aintzat hartzea eskatu dio martxotik hona idazkaria izan denari Aldundiari. Idazkaria izan denari "lan jazarpena" eragin diezaikeelakoan abiatu du ikerketa epaileak. Era berean, idazkariaren lanpostua betetzeko alkateak abiatutako prozedura bertan behera uztea eskatu du idazkari ohiak. Erantzukizunak argitu bitartean, hori "eten" egin behar dela uste du.

4,26

Ekintza sozialera eta berdintasunera bideratuko duen diru kopurua, milioitan.

Promozio ekonomikorako beste 1,2 milioi euro ipiniko ditu Zornotzako Udalak.

Inbertsioak

3.626.000 euro bideratuko ditu inbertsioetara.

Horien artean daude Kaitan igogailua ipintzea edo Konbenio kalea urbanizatzea. Zubiondo parkean skate park berria atonduko dute

%68,8

Aurrekontu parte hartzaileek aurrekontu osoan duten tokia.

Aurrekontu osoaren %68,8 inguru aurrekontu parte hartzaileetatik irtendako egitasmoetara bideratuko da.

Kaletarrak diren herritar askok Garai bueltako landa eremuan topatu dute arnasgunea itxialdian

GARAI • EKAITZ HERRERA

Udalerrri urbanoetan bizi diren herritarrek Garaiko landa eremuaren bueltan topatu dute itxialdi perimetralak dakarren itolarriari aurre egiteko botika. Asteburuetan bistakoa da hori. Mugakideak diren herrietako biztanleen joan-etorrien lekuko izaten ari da Garai. Joan den asteburuan izandako polizia kontrolek hainbat garaitar eta bisitari harritu zituzten. Hainbat lekukok ANBOTORI azaldu diotenez, joan den asteburuan Ertzaintzaren hiru kontrol egon ziren, aldi berean, Garaiko sarrera-irteeretan.

Landa eremuan bizitzea

Itxialdiak ekarri duen ondorioetariko bat da kaletarrek ohi baino modu agerikoagoan balioetsi dituztela landa eremuaren onurak. Garaiko alkate Erramun Osak gogoeta txiki bat egin du horren harira. Adierazi du pandemiaren aurretik Garai bazela inguruko herritarren gozamenarako leku, eta horregaitik azpimarra egin du landa eremuko herriak zaintze horretan. Bisitarietara eta instituzioetara egin die deia. "Landa eremua ez da aisialdi tokia bakarrik. Bizitokia ere bada. Eta, horregaitik, gainerako herrietan dauden zerbitzu berdinkideak eskatzen ditugu", dio. Mugikortasunari lotutakoak nabarmendu ditu Osak, Garain berezko osasun edo hezkuntza zerbitzurik ez dagoela kontuan hartuta adibidez. Baita ohikoak diren argindar arazoei lotutakoak ere. "Landa eremua bizi bada, bertan bizi direnek zaintzen dutelako da hori. Herritarrek, baserritarrek. Eta herritarrek bertan lekutu daitezten, ezinbesteko zerbitzuak bermatu behar dira", esan du.

Durangoko Udalak bentzeno emisioen "jatorri zehatza" zein den ikertzeko eskatu dio Jaurlaritzari

Durangoko udal zinegotziak Eusko Jaurlaritzagaz batu dira, asteon, airearen kalitateari buruzko "elkarlana" abiatzeko asmoz. Ingurumen Sailagaz batu dira. "Guk hasitako bidea segitzeko eskatu diogu Jaurlaritzari", esan du gobernu taldeak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

"Guk hasitako bidean segitzeko eta bentzeno emisioen jatorri zehatza zein den aurkitzeko eskatu diogu Eusko Jaurlaritzari". Asteon egindako osoko bilkuran, Aritz Bravo zinegotziak berba horiekin laburbildu du Durangoko Udalak eta Jaurlaritzak martitzenean egindako bilera.

Durangoko udal ordezkariak Gasteizera joan ziren airearen kalitateari buruzko kezkak aurkeztera. Gaian inplikatzeko eskatu zioten Jaurlaritzari. Besteak beste, Tecnaliak hatsari buruz egindako ikerketa Ingurumen Saila egiten dabilen ikerketan txertatzea eskatu zuten. Durangoko EAJren esanetan, udalerriko eta eskualdeko airearen kalitatea hobetzeko "bide bakarra" Eusko Jaurlaritzaren eta Durangoko Udalaren arteko lankidetzak da. Jeltzaleek adierazi dute udalak "berehala" egin beharko lukeela bizilagunen kexen erregistro estandarizatu bat. Eta berretsi dute Durangon osatu berria den Airearen

ren Kalitatearen Mahaian "beharrezkoa" dela Ingurumen sailburuordezta ordezkatuta egotea.

Talde jeltzalearen ustez, "beharrezkoa da Ingurumen Sailburuordezta gaur egun egiten ari den

airearen neurketa-kanpaina amaitzea, eta lortutako datuak garden-tasun osoz argitaratzea, Durangaldeko herritarrek informatzeko eta lasaitzeko". PSE-EEko Jessica Ruizek "horrelako gai batez alarmerik ez

sortzeko" eskatu zion udalari. Durangoko airearen kalitatea hobetu daitekeela, baina nitrogeno monoxidoaren eta sufre dioxidoaren parametroak maila "onargarrian" daudela gaineratu zuen.



Aritz Bravo zinegotzia izan zen Ingurumen Saileko kideekin batu zen udal ordezkarietarikoa.

Durangoko EAJk hornikuntza-merkatua biziberritzeko plan bat egitea eskatu du

Merkatua "gainbehera egoera argian" dagoela dio EAJk, eta merkatua biziberritzeko plan integral bat hile bitan diseinatzeko eskatu dio Durangoko udal gobernu taldeari

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko EAJk herriko hornikuntza-merkatua biziberritzeko plan bat egiten hastea eskatu dio udal gobernu taldeari. EAJren esanetan, Durangoko merkatua "gainbehera egoera argian" dago eta egoeraren erakusgarri den zenbaki bat ere eman du horretarako: gaur-gaurkoz zazpi baino ez dira merkatu barruan martxan dauden saltokiak. Egoera larri horri kon-

tsezioen akabera gehitu dio EAJk. Azaldu du saltokiei datorren urrian amaituko zaiela 1996an emandako kontzesioa, eta horregaitik guztiagaitik, "parte hartze handiko" prozesu bat "lehenbailehen" hasi beharko litzatekeela iradoki du.

Udal gobernu taldeari eskatu dio merkatua "biziberritzeko plan integral" bat "hile bitan" egin dezan. Jeltzaleek argudiatu dute "azoka plaza hirigune historikoaren eta

udalerriko erdigune neurgarrikoaren artean dagoenez, azpiegitura estrategikoa dela Durangoren etorkizunerako". Gaineratu dute "udalerriko merkataritza eta kultura bizitzarako suspertzea funtsezko elementu dinamizatzaileak" izan daitezkeela, eta horrez gainera "sustapen ekonomikoa" ekar dezaketela.

Udalbatza osatzen duten zinegotziek eguazten honetako osoko

bilkura eztabaidatu dute gaia. EAJk urgentziatzeko adierazpen bat aurkeztu zuen bertan, baina testuaren edukia "erregu" lez planteatuta zegoela interpretatu zuen udal idazkariak. Ondorioz, bozkatu beharreko adierazpen modura aurkeztutako testua "erregu" izaeragaz erregistratu zen.

Gobernu taldeak merkatu plaza biziberritzeko asmoa duela aurreratu zuen, baina ez zen bat etorri EAJk markatutako denbora tartearaz. "EAJk proposatutako biziberritze plana gure egingo genuke, plana hile bitan egikartzeko aipamena" agertuko ez balitz. Sasoi heldutakoan, gaia osoko bilkurara behar den moduan eramango zutela aurreratu zuen alkateak.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko azaroaren 27a
19. urtea - 830. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 alea



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Baheketetan aleatorioki topatu diren positiboek kontaktuen paradigma berraztertzeke aukera ematen digute”

Durangoko baheketagaz lotuta, EHUKo ikerketa talde bat COVID-19aren transmisioari buruzko ikerketa egiten dabil



Ugo Mayor Martinez
EHUKo irakaslea eta
Ikerbasqueko ikerlaria
Donostia | 1975

DURANGO • JONE GUENETXEA

**Koronabirus sasoiotan, bada galde-
ra zentral bat, oraindino erantzun
zehatzik aurkitu ez zaiona. Non eta
zelan kutsatzen gara? Informazio
hori bilatu guran, EHUKo talde ba-
tek, Ugo Mayor buru duela, ikerketa
bat martxan ipini du Durangoko
Udalagaz.**

**Durangoko baheketan parte hartu
zuten positiboekin birusaren trans-
misioa ikertu gura izan duzue.**

Baheketak egiterakoan, positibo askok ez zuten sintomarik eta ez ziren positibo baten kontaktuak. Horrek aukera paregabea ematen du atzera begirako arakatzea egiteko. Nor kutsatu dezaketen aztertu beharrean, nork kutsatu zituen jakin gura dugu. Beraz, pertsona hauek oso iturri baliagarriak dira kutsatzeak non eta nola gertatzen ari diren ulertzeko. Kutsatzeak gertatzen diren arlo batzuk ezagunak dira, baina ematen du askotan positibo askok ez dakitela nork kutsatu dituen.

Ikerketa hori zein fasetan dago?

Ikerketa martxan ipini genuenerako positiboek isolamendua amaituta zeukaten. Horrek zaildu egin du jendearen parte hartzea. Jendea isolatuta dagoen bitartean egitea litzateke egokiena. Beraz, portzentaje batek parte hartu du eta horien

datuak aztertzen ari gara. Kopurua-
ren aldetik, ikerketa honetatik zai-
la izango da oso ondorio sendoak
ateratzea, baina balioko digu beste
baheketa batzuetan estrategia ho-
beto diseinatzeke pilotu modura.

**Beste herri batzuetan ikerketa mar-
txan ipini gura duzue?**

Aukera paregabea litzateke. Aleato-
rioki topatu diren positibo horiek
kontaktuaren paradigma berraz-
tertzeke aukera ematen digute. Akaso gertatzen ari zaiguna da kontaktuaren definizioan galtzen ari zaizkigula kutsatze kateak. Hasieran kasuaren definizioa zen Txinatik etorri berria bazinen edo Txinatik etorri berria zen norbaitek sintomak bazituen, eta harekin kontaktua izan bazenuen. Hor asintomatikoaren bitartez kutsatzeak gertatzen ari ziren. Eta komunitatean zabaltzen ari zenean, kasu askotan sintomen aldetik argi zegoen COVID-19a zela, baina kasuaren definizioa betetzen ez zuten, ez zieten PCRa egin eta ez zen transmisioa hobeto mugatu. Orain, antzerako zerbait gertatzen ari dela pentsatuta iruditzen zaigu lan egin behar dela kontaktua ehuneko ehuneko ulertzen, birusa zelari hedatzen den jakiteko.

**Momentu honetan, kontaktu zuzen-
naren irizpideak ezagutzen ditugu:
15 minutu baino gehiago maskararik**

**barik 1,5 metro baino gutxiagoan
positibo batek egotea.**

Termino hori ondo dago, baina posible da beste mota bateko kontaktuak ere egotea. Esate baterako, badakigu maskarak ez direla ehuneko ehuneko eraginkorrak. Gela berean ordubeteetan positibo batek egon bazara, aukera dago aerosolen bitartez kutsatzeko.

**Kutsatuen erdiek baino gehiagok ez
dakite zelari kutsatu diren.**

Hainbat kontzeptu argitu beharko lirateke. Alde batetik, agerraldiak daude. Agerraldiak egoteko, gutxienez hiru kasu lotuta egon behar dira. Posible da pertsona bakarraren kontaktua izatea, bikotekideagaz adibidez, eta kasu horretan bata bestearengandik kutsatu ahal izan da, baina lehenengoa ere ez dakigu non kutsatu den. Eta oso portzentaje altu batek, kutsatuen erdiek baino gehiagok, ez dute positibo batekin inongo kontakturik definituta. Identifikazioa hobetu egin daiteke. Bestalde, gaur egungo aztarnariak aurrera begirako lana egiten dute eta kutsatze berriak ez gertatzea da euren lehentasuna. Ildo horretatik, lan handia egiten dute. Baina gure ikerketa laguntza bat da, atzerantz begira jartzeko eta kateak nola eten hobeto ulertzeko.

**Azken asteetan martxan jarritako
neurri berriekin kutsatze kopuruak**

**behera egin duen arren, oraindik
zifra altuetan gaude.**

Kutsatzeak oraindik gertatzen ari dira. Bestela, bi astean ez litzateke kasu berririk agertuko. Kasu batzuk izan daitezke jendeak ez dituelako neurriak errespetatzen, baina baliteke kutsatzeak beste leku batzuetan gertatzen direlako izatea.

**Leku batzuetan aplikazioak jarri dira
martxan. Estatuan ez du arrakasta
handirik izan.**

Aplikazioaren inguruan bi gauzak harritzen naute. Alde batetik, ez da komunikazio kanpaina potente bat egin jendeak aplikazioak jaitsi ditzan. Bestetik, herrialde batzuetan leku zehatz batzuetara sartzeko aplikazioa deskargatuta izan behar duzu. Horrelako neurri batzuekin, erabilera bultzatu daiteke. Gainera, sentsazioa daukat aztarnariak ez diotela balio gehiegirik eman. Baina hau iritzi subjektibo bat da. Edonola ere, lagungarria izan daitekeen neurri bat da eta ez gara asko erabiltzen ari.

**Ostalaritza ixtea, taldeak sei pertso-
nakoak izatea... kutsatzen fokua in-
guru sozialean ipini da. Baina beste
transmisio gune batzuk ere aintzat
hartu beharko lirateke?**

Argi dago maskara kentzen badugu eta lagunartean trago batzuk elkarrengandik gertu hartzen baditugu, birusa hedatzeko arriskua da

goela. Baina fokua eta neurriak hor bakarrik jartzea aurretik jarri den kontaktu definizioaren ondorio bat da. Beraz, topatu dira kutsatzeak bilatu diren lekuetan. Kontaktua definizio horrekin, maskaragaz ezin zarela kutsatu, ekidin egiten duzu kontaktuak beste inguru batzuetan topatzea. Bi aste joan dira azken neurriak hartu direla eta ezinezkoa da kutsatze denak hor egotea, horrela balitz ez litzatekeelako kutsatzerik egongo. Baina, daturik izan gabe, garraio publikoa, lana edo eskolak seinalatzea transmisio iturri modura arriskutsua da, ez baitakigu horrela den. Beste eremu batzuetan ere egon daitezke. Birusari edozein barrera jartzen badiogu, kutsatzeak beherantz egiten

“
**Kutsatuen erdiek
baino gehiagok ez
dute positibo batekin
inongo kontakturik
definituta”**
—

dute. Arazoa da birusak beste kutsatze bide batzuk topatzen baditu berriro gora egingo duela, oraindik ere nahiko transmisio komunitarioa dago eta.

**Esperantza guztiak txertoan jarri di-
ra. Zein eragin izan dezake txertoak?**

Zaila da jakitea. Balorazio oso positiboa egiten dut enpresa asko dabil-
tzalako txertoa garatzeko lanean. Itxuraz, hainbat kasutan emaitzak norabide onean doaz. Hala ere, oraindik ez dira guztiz onartu, eta, beraz, ez dakigu merkaturatu eta aplikatu ahaliko diren. Zain egon beharko dugu. Edonola ere, logistika guztia aurretik antolatzea ondo dago prest dauden momentuan segundo bakar bat ere ez galtzeko. Arriskutsua iruditzen zaidana da dena ziurtatuta egongo balitz bezala saltzea. Baietz espero dugu, baina hainbeste oihartzun emateari arrisku handia ikusten diot. Agian jendearen morala igotzeko egiten dute, baina horrek bere arriskua du. Ziurgabetasun momentua da eta ez nuke ez baterako ez besterako apusturik egiten.

**Konfinamendua mahai gainean
zegoela esan ziguten orain aste
batzuk. Txertoa urtarrean ematen
hasiko diren mezu horregaz aldaketa
etorriko dela diote. Hau errusiar
mendi bat da. Ez dago erdibiderik?
Edo konfinamendua edo gure betiko
bizitza?**

Ezjakintasunarekin bizitzera ohitu behar dugu. Ez dut beste gorakada bat baztertzen eta gabonetan denok konfinatuta egotea. Zenbakiak norabide onean doaz, baina oso altuak dira. Apustu bakarra txertoaren alde egiteagatik B planik ez izatea arriskutsua da.




Indarkeria matxistaren aurkako oihu bateratua

Bakoitzak beretik baina instituzio eta herri mugimendu guztiek bat egin zuten azaroaren 25ean indarkeria matxistaren kontra egiterako orduan. Eguaztena Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna izan zenez, tokian tokiko instituzioek eta herri mugimenduek hainbat mobilizazio egin zituzten.



Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO**

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ


**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

**Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO**
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11567 kol. zk.



keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Podologia**
PSE: 148/13



Goiatz Murua
kol. zbk. 147

Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238

Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Telefonoa: 946203630
Monago Torre 4, Behea
48200 Durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínicadental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO**
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09



AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaestheticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6
48200 - DURANGO**
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

'Gerra eta errepresioa Elorrion', ezkutatuta egon direnen bizipenak jasotzen dituen liburua

'Gerra eta errepresioa Elorrion. 1936-1945' liburua herriko eskoletan lantzea da elkartearen helburua, gazteei historia helarazteko. Urte amaieratik aurrera, Elorrioko Turismo bulegoan egongo da liburua erosteko aukera

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2018an, Laumunarrieta elkarteak eta Elorrioko Udalak memoria historikoaren beka aurkeztu zuten. Bekaren helburua ikerketa bat egitea zen, frankismoaren lehenengo urteetan oinarritutakoa.

Asteon egin dute liburuaren aurkezpena, 'Gerra eta errepresioa Elorrion. 1936-1945', Iturri kultur etxean. Bertan izan dira Idoia Buruaga alkatea, Maria Herrero alkateordea, Mila Villa Laumunarrieta elkarteak kidea eta Mikel Diego historialaria. Liburuak 30 bat elorriarren testigantzak jasotzen ditu, eta orain arte isilean eta ezkutuan egon diren elorriarren bizipenak jasotzen ditu. "Giza eskubideen urraketak jasan dituzten pertsonen egia, erreparazioa eta justizia zor diegu. Eta hau egia argitaratzeko pauso bat da", azaldu zuen prentsurrekoan Mikel Diego bilbotarrak.

Mila Villa Laumunarrietako kideak eskerrak eman dizkie ikerketa hau kaleratzen lagundu duten guztiei. "Horrez gainera, liburua irakurtzerakoan norbait minduta sentituko balitz zerbait kontatu ez dugulako, barkamena eskatzen diogu. Ez da izan testigantzak ezkutatatu gura ditugulako, testigantza horiek ez ditugulako jaso baino",



Ezkerretik hasita, Idoia Buruaga, Mikel Diego, Mila Villa eta Maria Herrero.

esan du Villak. Horregaitik, liburua irakurri eta euren gertukoren ba-

"Giza eskubideen urraketak jasan dituztenei egia, erreparazioa eta justizia zor diegu"

ten istorioa topatzen ez duten herriarrei elkartera edo udaletxera jotzeko deia egin diete.

Bestalde, Elorrioko Udaleko kideek azaldu dute memoria berreskuratzeko lanean jarraituko dutela. "Orain arte istorio asko ahaztuak izan dira. Udalaren helburua hemendik aurrera ere Laumunarrieta elkarteagaz lanean

jarraitzea da", adierazi du Idoia Buruaga alkateak. Ildo beretik, Maria Herrero alkateordeak esan du liburua ordaindu bako zorra dela, "herriak bere historiaren zati batez duen zorra".

Liburua herriko eskoletan lantzea da orain elkartearen helburua, Elorrioko gertakariak gazteei hurbiltzeko.

Hondakinen Prebentziorako astean, garbigune mugikorra Elorrion

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hondakinen Prebentziorako Europako Asteagaz batera, Elorrioren garbigune mugikorra ipini dute.

Aste honetan, aparkalekuan ipini dute baserri itxurako garbigunera etxean botatzeko zituzten tresnak eraman ahal izan dituzte elorriarrek. Besteak beste, material hauek jaso dira: etxeko tresna elektriko txikiak, sukaldeko tresnak, etxeko olio (ontzi itxitan), sakelako telefonoak, kableak, pinturak eta disolbatzaileak, aerosolak, kutsatutako xurgatzaileak, tonerrak, tintazko kartutxoak, metalezko kapsulak, plastikozko kapsulak, pilak, CDak, DVDak eta kasetak eta erradiografiak.

Garbigunea Bizkaiko beste herri batean ipiniko dute datorren astean.



Aurrekontuak "benetako prozesu parte hartzaile" batez lantzeko eskatu dio EH Bilduk Atxondoko Udalari

Datorren urteko aurrekontuetan euren eskariak kontuan hartzeko eskatu dio Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak udalari



ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte amaieragaz batera, hurrengo urteko aurrekontuak onartzeko sasoia heltzen da udaletxeetara. Horregaz lotuta, aurrekontuak lantzeko "benetako prozesu parte hartzaile bat" egiteko eskatu dio Atxondoko EH Bilduk udalari. "Urteko aurrekontuak landu orduko, uste dugu beharrezkoa dela jakitea zeintzuk diren herriaren beharrianak eta proposamenak", adierazi dute EH Bilduko kideek. Eta esan dute prozesu parte hartzaile hori ez dela "edozelan" egin behar. "Herri txikia da gurea eta horrek asko errazten du mota honetako prozesuak egitea. Ezinbesteko ikusten dugu udalerriko hiru guneekin (Axpe, Arrazola eta Apatamonasterio) prozesua zabaltzea, bakoitzak

dituen beharrianak zeintzuk diren aztertzea eta herriko taldeei euren beharrianak galdetzea", azaldu dute talde subiranistako kideek.

Abuztu eta irail bitartean, Atxondoko Udalak postontzi bat ipini zuen udaletxean herriarren iritzia jasotzeko asmoz. "Udalak benetako parte hartzea bilatzeko borondatea balu, epeak beste batzuk izango ziren eta horri publikitate gehiago egingo zitzaien", esan dute EH Bildukoek.

Gurasoen eskaria

Bestalde, Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak prentsa oharra bidali du zenbait zehaztapen egin eta udalari eskari bat egiteko. "Datorren urteko aurrekontuetan gure eskariak kontuan izan

ditzan eskatzen diogu udalari", azaldu dute.

"Azkenengo albisteetan gure izenak irten duenez, gauza batzuk ditugu argitzeko", horrela hasi dute prentsa oharra guraso elkarteak kideek. Oharrean azaldu dutenez, Atxondoko Udalak "behin ere" ez die galdetu zeintzuk diren eskolak dituen beharrianak, eta euren berbetan udala "bere kabuz" dabil beharrianok zehazten. "Hainbat urtean ibili gara eskolarako sukaldea eta haurreskola proiektua eskatzen, eta horietatik dira, hain zuzen ere, premiarik handiena guraso elkartearentzat eta eskolarentzat berarentzat. Badirudi 2021eko udan gauzatuko dela Hezkuntza Sailari dagokion eskola proiektua. Eta, gure ustez, udalari dagokion Haurreskolaren obra honez batera joan beharko litzateke", jarraitu dute gurasoek.

Horrez gainera, herriko liburutegiak itxita jarraitzen duela eta "ulertezina" iruditzen zaiela salatu dute.

Mankomunitateak kanpaina bat martxan hasi du edukiontzi marroia bultzatzeko

Hondakin organikoen birziklapena sustatu gura dute

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO
Edukiontzi marroia Durangaldera heldu zenetik bost urte joan direnean, Durangaldeko Mankomunitateak beste bultzada bat eman gura dio hondakin organikoen birziklapenari 'Eskuan duzu aukera, zaborra ala lurra' kanpainaren bitartez.

Izena emateko hainbat bide daudela gogoratu dute (telefonoa, helbide elektronikoa eta webgunea). Pausoa ematen dutenek doan jasoko dituzte mota horretako hondakinak birziklatzeko material guztia eta informazio orria.

2016tik hona, organikoaren bilketaren kopuruak "etenik barik gora" egin du, Mireia Elkoroiribe Durangaldeko Mankomunitateko presidenteak azaldu duenez. Hauek dira datuak: 2016an 99.060 kilo batu ziren, eta 2019an 108.180 kilo. Zerbitzua eskaintzen den zortzi udalerrietan, biztanleriaren %24 inguruk –Durangaldeko 1.635 etxe– parte hartzen duela kalkulatu dute. "Baina ezin gara horregaz

konformatu. Ondo dakigu zein garrantzitsua den esparru honetan aurrera egiten jarraitzea", esan du Elkoroiribek. Horregaitik ipini dute martxan kanpaina berria. Hondakinak gaika biltzeko eta birziklatzeko Nazio Batuek ezarritako



Kanpainako arduradunak, kanpaina islatuko duen irudiaren ondoan.

"Organikoa birziklatuta, jendea harritu egingo litzateke zer errefuxa gutxi geratzen den ikusita"

Augusto Uriarte Durangaldeko Mankomunitateko hondakin bilketa zerbitzuko arduradunak hondakin organikoak birziklatzeak dituen onurak eta abantailak azpimarratu ditu

Goiburu zuzena aukeratu duzue kanpainarako: 'Eskuan duzu aukera: zaborra ala lurra'.

Goiburu hau proposatu zigutenean, hasieratik aproposa iruditu zitzaigun: zaborra ala lurra, zeuk aukeratu. Birziklapenaren

garrantzia ondo islatzen du eta mezua lehenengo kolpean helitzen da.

Zenbat ontzi daude orain herrietan banatuta?

Gaur egun, hondakin organikoetara bideratutako 91 edukiontzi

"Gaur egun, hondakin organikoetara bideratutako 91 ontzi daude herriguneetan"

daude herriguneetan. Aurten, esaterako, beste 30 ipini ditugu. Etorkizunean beste 10 bat gehituko ditugu, eta 100 bat izango ditugu guztira. Azken horiek ipinita, herriguneetako irla denetan egongo da organikoa botatzeko aukera.

Jendeak duda asko izaten ditu mota honetako birziklapenaren inguruan?

Ez. Hondakin organikoak birziklatzen duenak ondo egiten du bere lana, kontzientzia osoz. Hori baieztatzen duten datuak ditugu. Hondakinak konpostegira eramaten direnean, karakterizatu egiten dituzte eta orduan ikusten da zer hondakin mota jaso den. Emaizak oso onak dira.

helburua betetzea –Garapen Jasagarriko Helburuen (GJH) barruan–, eta Durangalde "atseginagoa eta ingurumenagaz konprometituagoa" lortzea dira helburuak.

Zer eraman daiteke?

Edukiontzi marroietara honako hondakin organikoak bota daitezke: fruta, barazkiak, hostoak, belarra, loreak, infusio-poltsak, kafe hondarrak, fruitu lehorrak, materia organikoz zikindutako paperezko zapiak, arroza, lekaleak eta pasta, besteak beste.

Konpostagarriak izan arren, gaur-gaurkoz edukiontzi marroira

bota ezin daitezkeen hondakinak ere zehazten dituzte: animalia jatorriko janari hondakinak, arrautza-oskolak, esnekiak eta animalien gorotzak, besteak beste. "Aldunditik aurreratu digutenez, 2021eko martxo ingururako mota horretako hondakinak edukiontzi marroira bota ahal izatea espero dute", dio Elkoroiribek. Hori gertatzen denean, "beste bultzada bat" eman ahaliko diote hondakin organikoen birziklapenari.

Edukiontzi marroiez gainera, landa eremuetan bizi direnei birziklapena errazteko, etxeko 440 konpost-ontzi ere banatu dituzte.

Hondakin organikoa ez den bestelako hondakinen portzentaia oso txikia izaten da eta hori oso positiboa da.

Beraz, ohitura hartzean dago gaikoa.

Bai. Ohitura hartzen denean ez da konplikatu. Gainera, ia dena birziklatzeak uzten duen sentsazioa oso atsegina da. Nik etxean konpostagailua dut eta hara dena bota dezaket. Bada, errefuxako poltsa hilean behin ateratzen dut. Hondakin organikoa ere birziklatuta, jendea harritu egingo litzateke zer errefuxa gutxi geratzen den ikusita.

Batutako hondakinak nora eramaten dira?

Durangaldeko udalerrietan batutako hondakin organikoa Bizkaiko Konpostagira bidaltzen da. Azpiegitura hori Aldundiak Alonsotegin duen Eko-parkearen barruan dago. Han konpostatze-prozesua modu naturalean egiten dute. Konpostatu ondoren, hondakin organikoa lur publikoetara itzultzen da, eta bere mantenugai eta propietate guztiak ematen zaizkio. Ziklo bat ixten da horrela. Lurretik jasotakoa lurrera bueltatzen da berritua. Beste abantaila bat da sortutako zaborra behar den moduan bereizita, erraustegira heltzen den zatia ere murriztu egiten dela.

Izen ematea

Mankomunitatean hiru modutara eman daiteke izena:

- 94 623 25 22 telefonoan.
- behargintza.mdurango@bizkaia.org helbidera idatziz.
- Webguneko formularioa beteaz: www.mdurango.org.

Izena eman ostean honako material jasoko da doan.

- Edukiontziak irekitzeko giltza.
- 10 litroko plastikozko ontzi bat.
- Poltsa konpostagarri sorta bat.
- Edukiontzi marroian onartutako hondakinei buruzko informazioa.

Datuak

1
8 herritan

Mankomunitateak Abadiñon, Atxondon, Elorrión, Garain, Iurretan, Izurtzan, Mañarian eta Zaldibarren ematen du zerbitzua.

2
%8,5 gora

Hiru urtean organikoaren bilketa kopuruak %8,5 egin du gora.

- 2016an: 99.060 kilo hondakin organiko batu zituzten.
- 2019an: 108.180 kilo.

3
1.635 etxetan

Zerbitzua eskaintzen den zortzi herrietan, biztanleriaren **%24k** erabiltzen du bosgarren edukiontzia. Gutxi gorabehera 1.635 etxebizitza dira.

4
440 konpostatze-ontzi

440 konpostatze-ontzi banatu dituzte landa eremuetako bizilagunek eta lursail partikularra duten etxebizitzetako biztanleek hondakin organikoak bota eta berrerabiltzeko.



Gaur egun hondakin organikoetara bideratutako 91 edukiontzi daude.

"Babesik barik" sentitzen direla-eta, Berrizko, lurretako eta Elorrioko ostalariek kalera irten dute euren egoera salatzeke

Hainbat herritarren babesagaz, Berrizko ostalariek manifestazioa egin zuten joan zen astean. Asteon kartelak ipini dituzte kaleetan eta elkarretaratzea egin dute



Berrizko ostalariek elkarretaratzea egin zuten Pastor del Gorbea jatetxearen aurrean.

Herriko taberna guztietatik pasatu ziren eta hango leihoetan ipini zituzten kartelak: SOS Berrizko Ostalaritza. Ondoren, herriko hainbat ostalari eta herritarrek elkarretaratzea egin zuten.

lurretan eta Elorrion ere bai

Berrizkoak ez dira kalera protestan irten duten ostalari bakarrak. Lurretan, esaterako, tabernariak eta zenbait herritarrek egunero irteten dute kalera zarata egitera, astelehenetik barikura.

"Arazoa barik erantzuna direla" adierazi zuten ostalariek barikuan Elorrion

Elorrion kontzentrazioa egin zuten joan zen barikuan, herriko plazan. Elkarretaratze jendetsua izan zen eta hainbat herritarrek eskaini zieten babesa ostalariei. "Ados gaude pandemia hau geratu beharra dagoela eta argi daukagu arazoa barik erantzuna garela. Gu zapaltzea ez da bidezkoa. Ez dugu dena ondo egin, baina portzentaje handi batean bai. Protokolo guztiak bete ditugu tabernetan, lan pedagogikoa egiteraino", esan zuten elorriarrek.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azaroaren 7an ostalariek ateak itxi behar izan zituzten berriro, COVID-19aren kutsatze datuek okerrera egin zutelako Euskal Autonomia Erkidegoan. Jaurlari-tzak horrela behartuta, ostalariek bigarren zutela zuten pertsiana.

Euren egoera "dramatikoa" da gaur egun, eta "kriminalizatuta" sentitzen direla azaldu diote hainbat ostalarik ANBOTOr.

Bigarren itxialdiagaz batera, Berrizko ostalariak kalera protestan irteten hasi ziren. Joan zen astean, esaterako, eliza ondoan

hasi eta manifestazioa egin zuten herriko kaleetatik 'SOS ostalaritza' lemapean. "Babesik barik" daudela eta ez dutela informaziorik salatu zuten.

Asteon, eguaztenean, berriro irteten zuten kalera euren egoera azaltzen zuten kartelak ipintzera.

lurretako ostalariek astelehenetik barikura irteten dute kalera zarata egitera

Otxandioko gaztetxetik urte osorako prestatu duten plangintza aurkeztuko dute domekan

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko gaztetxeak 20 urte egin ditu aurten. Urteurrena aitzakia lez hartuta, orain arte egindako bidea baloratu eta aurrera begirako plangintza bat diseinatu dute. Plangintza hori herritarrei aurkeztuko diete domeka honetan, Otxandioko plazan egingo duten aurkezpenean. Besteak beste, testu bat irakurriko dute, musikak giro-tutako ekimenean.



Podologia zerbitzua adin guztietara zabalik, eskaera handiagaitik

Saio kopurua ere handitu dute: gaur ez ezik hurrengo barikuan ere joango da podologoa Mañariara

MAÑARIA • J.D.

Bariku honetatik aurrera, podologia zerbitzua eskainiko dute Mañarian, udalaren ekimenez. Hilean behin antolatzea eta 60 urtetik gorakoentzat izatea zen hasierako asmoa, baina eskari handia egon denez zabaldu egin dute

zerbitzua: gaur ez ezik hurrengo barikuan ere egongo da eta adin guztietara zabaldu dute. Dagoeneko hitzordu guztiak (22 pertsona) hartuta daude. Hurrengo saioa urtarilaren 8an izango da. Eskari handia badago, berriro ere saio bi antolatzea pentsatuko dute.



Jubilatuaren gunean eskainiko dute podologia zerbitzua.

Birziklatzeko kontzientzia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna Mallabian

Trakamatraka proiektuak Mallabia bisitatuko du gaur



Mallabiko pilotalekuan eskainiko dute ikuskizuna.

MALLABIA • J.D.

'Udazkeneko ekintzak' izeneko egitarauaren barruan, *Trakamatraka* ikuskizuna eskainiko dute gaur, 17:30ean, Mallabiko pilotalekuan. Musika aniztasuna eta ingurumenarekiko errespetua bateratzen

dituen proiektua da, eta birziklatutako produktuekin egindako musika-tresnak erabiltzen dituzte ikuskizunean. Musika modu erakargarrian hurreratzen eta, aldi berean, birziklatze kontzientzia lantzen ahalegintzen dira.

Dozenaka herritar Zaldibarko udaletxe parean batu dira Elizondoko igogailuaren proiektuaren aurkako protestan

Juan Mari Uriarte alkateordearen berbetan, "datozen egunetan" aurkeztuko dute proiektua Hirigintza Batzordean

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Herritar talde batek egindako deialdiari erantzunez, 'Igogailurik ez' lelopean dozenaka herritar batu ziren udaletxeko plazan martitzen arratsaldean. Ordu erdi inguruan egon ziren udaletxe parean. Bizilagunek protestan azaldutakoaren arabera, igogailuaren proiektuak 24 etxebizitzatako bizilagunei "modu zuzenean" eragiten die. "Beste askori ere eragiten die proiektuak, eta gainera, ez dugu uste hau denik zaldibartarron mugikortasun beharriaz ondoen erantzuten dien proiektua", adierazi zuten. Txalo zaparrada batez amaitu zuten protesta

38 alegazio proiektuari

Ohiko bilkura egiten ari zela baliatu zuten herritarrek protesta egiteko. Hain zuzen ere, Elizondoko igogailuaren gaiaren harira hainbat galdera planteatu zituen EH Bilduk bilkuran. Aitor Lopez zinegotziari erantzunda, Juan Mari Uriarte alkateordeak (EAJ) esan zuen proiektua "datozen egunetan" eramango dutela Hirigintza batzordera. Igo-gailuaren proiektuari aurkeztu zaizkion alegazioak aztertu ondoren, proiektuaren zirriborroari hainbat aldaketa egin dizkiotela azaldu zuen Uriartek. Guztira, 38 alegazio jaso dituzte, 34 proiektuari buruzkoak, eta gainerako laurak irisgarritasunari loturiko gaiei buruzkoak. Batzordetik igaro eta gero, bilkuratik pasatuko da proiektua, han onartu dezaten. Uriarteren alkateordearen berbetan, "seguru" onartuko da aurten proiektua. Horrez gainera, igogailuarena "aspaldiko proiektua" dela azaldu zuen. "Hau ez da gure kapritxo bat. 2009ko irisgarritasun planean jasota zetorren igogailu bi egiteko asmoa. Horietariko bat berreskuratzea izan da guk egin dugun bakarra". EH Bilduko Carmen Sampedrok igogailuaren proiektua ea "egokiena" den galdetu zuen: "Argi dago zerbait egin beharra dagoela herria lotzeko, baina, hau da egokiena?".



Martitzenean, udaletxe aurreko plazan egindako elkarretaratzea.

2021ean, Abadiñoko Udalak 800.000 euro ipiniko ditu Zelaietatik Atxondoko mugaraino doan errepidea konpontzeko

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko udalbatzak 2021eko udal aurrekontuak onartu ditu asteon, EAJren eta Abadiñoko Independienteen aldeko botoekin. 2021eko inbertsioetan, Zelaietatik Atxondoko mugaraino doan foru errepideko lanek izango dute diru partidarik handiena, 800.000 eurokoa. Gainera, 2022an lan horietarako beste 766.000 euro ipintzeko konpromisoa hartu du udalak. Lan horien helburua Muntzaratzeko sarreran biribildune bat eraikitzea

eta kamioiak bertatik igarotzea debekatzea dira, besteak beste.

Mikel Garaizabal alkateak nabarmendu zuenez, 2021eko aurrekontuak "aurrekontu biziak" dira, "egoeraren arabera aldatzeko modukoak". Iñaki Rekalde EAJko zinegotziaren berbetan, aurten

EH Bilduk aurrekontuetan "parte-hartze eta gardentasun falta" dagoela kritikatu zuen

gainera "zuhurtzia handiz" egin dituzte aurrekontuak.

EH Bilduk, ostera, aurrekontuen kontra bozkatu zuen eta aurkeztutako aurrekontuetan "parte hartze eta gardentasun falta" zegoela kritikatu zuen Mikel Urrutia bozeramaileak. "Gainera, ulergaitza egiten zaigu Abadiñoko Udalak 100.000 euro gehiago inbertitzea udaltzaingoa, eta 45.000 euro gutxiago ipintzea hezkuntzarako. Beraz, gugaz ez kontatu honetarako", amaitu zuen Urrutiak.



BI-3336 foru errepidearen 2.250 metro luzeko tartean egingo dituzte lanak.

Eskerrik asko, Durango!

Gugatik egiten duzuna eskertzeko ordua heldu da... Jarraitu herrian erosten eta sari guzti hauek irabazi!

SARIAK	
Sari 1 - 1.000€	2 Sari - 500€
10 Sari - 100€	100 Sari - 20€

*Deskontu baleak izango dira.
Eta beste hainbat sari!

DURANGO
EUSKO JAULABURUA
GOBIERNO VASCO
Dendak Bai
688 738 102
www.dendakbai.eus

R.P.S. 214/06

A. Urreta
podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Durangaldea asteen

Dagoeneko zabalik dago JAEDek ipintzen duen stand solidarioa



JAEDen stand solidarioa Andra Marian dago.

Durango JAED elkarteak bari-kuan zabaldu zuen urteroko stand solidarioa, Durangoko Andra Marian. 50.000 zozketa-txartel kalera-tu ditu eta herritarrek urtarilaren 6ra arte izango dute aukera txartelok eskuratzeko. Honako hauek dira aurtien eskuratu ahalko diren sari nagusiak: Renault Clio autoa, iMac ordenagailua, Play Station 5 bat, bizikletak, erlojuak, eta Kanariar uharteetarako eta Portugalera bidaia bana.

Elkarteak deialdi berezia egin die herritarrei: "Aurtien jairik egon ez denez, ezin izan dugu zapien salmentatik eratorritako dirurik batu. Ohi den moduko Durangoko

Azokarik ere ez da egongo. Ezta Olentzeroren edo Errege Magoen kalejirarik ere. Hori dela-eta, standera etortzeko eskatzen diegu herritarrei, txartelak erosteko", esan dute elkarteak kideek.

Udalak ezohiko partida

Aurtien, gainera, Durangoko Udalak ezohiko diru partida bat emango dio elkarteari, 20.000 euro. JAEDek zozketa solidarioagaz finantzatu ohi du urteko lan solidarioaren diru zati handi bat. Batutakoagaz, herritarrik zaurgarrien beharri-zanak estaltzen dituzte. Besteak beste, elikagaiak eskaintzen ditu dohaintzan.

Politikan

Mikel Uriguena
Ruiz
SQ-2D



Denona zaindu

Azken asteotan, Iurretako alkatea salatua izan dela irakurri ahal izan dugu. Errugabetasun-presuntzioa errespetatzea besterik ez da geratzen. Hala ere, kasu honi heldzea interesgarria da, udal eta erakunde askotan hain ohikoak diren praktiken inguruan hitz egiteko.

Legearen arabera, 15.000€-tik beherako zerbitzu-kontratuak ez dute lehiaketa publikorik eskatzen. Kontratazioaren beharra justifikatzea da derri-gorrezkoa, ez zein enpresari ematen zaion. Gauzak horrela, erakunde askotan enpresa beretsuei ematen zaizkie kontratu txikiak etengabe, lagunak direlako edo ezkutuko interesak daudelako, batek jakin. Legez kanpokoa ez izateak ez du esan nahi etikoa zuzena denik.

Honek badu zerikusirik publikoa denaren gaineko ikuspuntuarekin. Agintea izateak edozer egiteko boterea dutelako sentsazioa ematen die askori. Ez dira kontziente herritarren ordezkari soil izendatu dituztela eta, beraz, denonak diren baliabideen aldi baterako zaindari. Erakundeek kudeatzen duten diruari ahalik eta erabilerarik zuzenena eman behar diote. Hori izan behar da zerbitzu publikoko bokazioa duen edonoren helburua. Ez da zilegi hortik ezta milimetro bat ere urruntzea.

Honegatik guztiagatik, Herriaren Eskubideak helburu zehatza ezarri dio bere buruari: edozein zerbitzu kontratatatu aurretik 3 aurrekontu eskatzea. Ohitura hori alor eta sail guztietan finkatzea da nahia. Prezio-kalitate harremanik onena duena hautatzea, herriko negozioei lehenasuna emanez beti. Durangokoa Durangon eta durangar guztiontzat.

Iritzia

NEBERONDO

Mendizale amorratua naiz eta horri esker hainbat lekutan egon naiz, eta bat Neberondoko zabalgunea izan da, Durangon dago.

Neberondo durangarrentzat, zalantzarik gabe, naturaz gozatzeko leku aproposa da. Benetan, ingurua ezagutzeko merezi du hara joatea. Halere, aitortu behar dizuet, joan zen astean kamioiak gora eta behera ikusi genituenean, ezin izan genuela sinestu, Neberondoraino doan bidea zimendatzen ari ziren. Zentzugabekeria iruditu zitzaigun. Hori da Bizkaiko Foru Aldundiaren politika? Mendiak urbanizatzea? Zertarako?

Lan horrekin, Neberondok betiko galduko du xarma. Egin beharrekoa guztiz kontrakoa izan beharko litzatekeela uste dut, funtsezkoa mendia birnaturalizatzea eta birsotzea izan behar da.

Bestalde, bidea estutu egin dute, hortaz, mendizaleok, korrikalariak, txirrindulariak, quad-ak, motoristak, denok konpartitu behar dugu bidea eta bizi dugun egoeran, covid dela-eta, jende gehiago joaten gara, eta hemendik aurrera autoak ere bai? Espero dugu autoek debekatuta izatea eta Neberondo parke tematiko ez bihurtzea.

Amaitzeko, hausnarketa egitera gonbidatzen zaituztet. Izan ere, daukagun altxor naturala zaindu behar dugu eta gehiago esango nuke, herritarron gozamenarako Neberondo naturalagoa lortzeko interesa duten talde guztiek parte hartu beharko lukete aldarrikapen honetan. Adibidez, ekologistek, mendizale taldeek, ... Ea denon artean basati dagoena horrela mantentzea lortzen dugun. Asfaltorik ez!

Lourdes Royuela Zumarraga

Iritzia

INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN, GAITASUN SOZIALISTAK ANTOLATU!

Biolentzia gizarte kapitalistaren ezaugarria da. Agerikoa batzuetan, beste kasu askotan ikusezina. Biztanleriaren gehiengoak ez dauka bere bizitzaren gaineko kontrolik, botere burgesaren pean interes kapitalisten arabera antolatzen baitira biziak. Hori biolentzia da.

Azken hileotan bortizkeria nabarmenagoa bilakatu da. Osasunaren izenean, kontrol soziala eta askatasunen murrizketa dakarten neurri politikoak hartu ditu goi-burgesiak, langileon bizi baldintzak kaskartzuz.

Oraingoan ere, emakume langileok bereziki kolpatuak izan gara. Gure bizi baldintzak okertzeaz gain, gudan erortzen den etxeko lanen zama areagotu da. Gainera, egoera honek testuinguru ezin hobea sortu du indarkeria matxista ugaritzeko. Pobretzeak indarkeria areagotzea eragin baitu, eta etxeratze aginduak eta mugikortasunaren murrizketek egoera horietatik ihes egiteko aukerak mugatu dituzte.

Indarkeria matxista ez da fenomeno isolatua, kapitalismoaren biziraupenerako beharrezkoa da. Emakumeok balio gutxiagoko subjektu izatea, gure lana merkeago saltzea, etxeko lanak gure ardura izatea eta aitortza politiko gabe sozializatuak izatea ahalbidetzen du, kapitalari etekina sortuz.

Hala, kapitalismoa emakumeon askapenerako muga da. Horregatik, estatuaren erakunde bitartez ez da biolentzia matxista amaituko. Emakume langileon askapenerako ezinbestekoa da gaurdanik antolatu eta inolako zapalkuntzarik existituko ez den gizarte eredu batera bidean pausoak ematen hastea. Helburu horrekin jaio da ITAIA.

Leire Uribe, Durangaldeko ITAIAko kidea.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com



Jaso liburuak zure etxean!

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu
686 214 964



bizum -ez ordaindu

C E R A M I C A S
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA


Horri eta ikusi

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com



ZER FALTA DA?

Zerrenda eraman arren, gauza bat erostea ahaztu zaio. Zer da?



BIKIAK

Denda hauetako erakusleihoan gauza batzuk berdinak dira? Zeintzuk?



MATEMATIKA

Alkandora hauetatik,
zein da merkeena?






A vibrant, cartoon-style illustration of a garden scene. The background is a solid light blue sky. In the foreground, there's a sandy ground. A large, brown, irregular rock sits on the left. To its right, a yellow beetle with black spots and legs is crawling. Further right, a small red insect is visible. On the far right, a yellow snail with a brown shell is moving. The middle ground is filled with tall, green, blade-like grass. Several pink flowers with yellow centers are scattered throughout. A large butterfly with orange and black wings and a blue body is perched on a flower on the left. A blue dragonfly is flying in the center, and a yellow dragonfly is on the right. The overall style is bright and cheerful, suitable for a children's book or educational material.

ZEINTZUK BAI?

Ondoko objektuetatik,
zeintzuk erabiltzen dira
lorategian lan egiteko?



DIFERENTZIAK

Topatu zazpi diferentziak.





LOTU ITZAZU

Lotu baloi hauek dagokien kirolagaz.



TALDEAN IPINI












Sailkatu instrumentu hauek.
Aire, perkusio ala hari-instrumentuak dira?





ORIGAMI


Jarraitu beheko pausoei
zuhaitz bat egiteko.





Ostalaritza

gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Durango



MARTXAN JARRAITZEN DUGU, ZURETZAKO LAN EGITEN...
ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO, ZURE ZAIN GAUDE!

ZABALIK GAUDE!

SALTSAN
· Kurutziaga kalea, 40



Durango



TXORIA NUEN MAITE
Ettxera eramaten dizugu debalde. Bila etorri ezkerro postre bat opari. Afariak egunero, astelehenak salbu. Larunbata eta igandeetan bazkariak ere.
· San Roke kalea, 17



Abadiño



BIZKARRA
Ezin bazara Urkiolara etorri, zaude lasai. Geuk eramango dizugu eguneko menua (11,50 €) etxera. Baita menu bereziak ere. Egin eskaera aurreko egunean, whatsapppe (689802937) edo telefonoz (946812026)
· Urkiola auzunea, 4-6



URKIOLAKO PARKEA

IBILALDIAK :: Abenduaren 1ean eta 4an



Urkiolako Parke Naturalak mendi ibilbideak antolatuko ditu datozen asteetarako. Lehenengo irteera biak honako hauek izango dira:

- Abenduaren 1ean *Ikazkinen bidea* egingo dute. Hasiera puntua Durangoko Landaederran ipini dute.

- Abenduaren 4an *Tellamendiko bira* egingo dute. Hasiera puntua Atxondoko Arrazola auzoan ipiniko dute. Izen ematea 94 681 41 55 telefono zenbakira deituta edo urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus helbide elektronikora mezua bidalita egin daiteke.

Azaroaren 27an

ABADIÑO antzerkia
‘Txangorritxotik otso emera (sei mutil medio)’ (Aitziber Garmendia),
19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ antzerkia
‘Ikimilikiliklik’ (Marie de Jongh), 16:30etan, Kultur Etxean.

DURANGO musika
Eneritz Furiak,
19:00etan, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO musika
Thomas Ospital,
20:15etan, Andra Maria basilikan.

ELORRIO antzerkia
‘Pinocchio’ (Gorakada),
17:00etan, Arriola antzokian.
‘Lloviendo ranas’ (Ados Teatro), 19:00etan.

IURRETA ipuin kontalaria
Umeentzako ipuin kontaketa: ‘Egin Putz, fuuu...’ (Dorleta Kortazar), 17:00etan, herri bibliotekan (3tik 5 urtera bitarteko umeentzat, heldu batek lagunduta).
‘Zu eta ni’, 17:45ean (6 urtetik gorako umeentzat).
Umeentzako ipuin kontaketa: ‘Monstruas’ (Anna Griott), 19:00etan.

ZORNOTZA antzerkia
‘Yo, la peor del mundo’ (Vaiven Produkzioak)
19:00etan, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 28an

BERRIZ ipuinak
Irudipuinak: Ixabel Agirresarobe eta Iñaki Martiaren, 12:15etan, Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia
‘Wake up woman’
19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO bertsoak
‘Kopla barik’ bertso zirkuitua, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO musika
XXXI. Musika Hamabostaldia: ‘Con aire de tango’ (Musika Oiasso Kamerata)
19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Azaroaren 29an

DURANGO bertsoak
‘Eh, Man Hé. La mecánica del alma’ (Zero en consulta),
19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Abenduaren 1ean

ZORNOTZA zinekluba
‘O que arde’,
19:00etan, Zornotza Aretoan. Jatorrizko bertsioan, gaztelaniazko azpiztituluekin.

Abenduaren 2an

ABADIÑO film laburrak
Punterego film laburren lehiaketa,
abenduaren 2ra arte eman daiteke izena, katalamixonekintza@gmail.com helbidera idatzita. Lehiaketa abenduaren 5ean hasiko da, 10:00etan, eta abenduaren 6an amaituko da, 10:00etan.

EUSKARALDIA

MALLABIA
ABENDUAK 3, 19:00, Herriko Plazan. Salda eta txorizo jatea. Mallabiko Berbalagunek antolatuta.

BERRIZ
AZAROAK 29, 12:30 Bertso saio telematikoa. Bertsolariak: Iruri Altzerreka, Sustrai Colina, Jone Uria eta Etxahun Lekue. Gai jartzailea: Maite Berriozabal
ABENDUAK 2, 19:30 Alos Quarte
ABENDUAK 3, 19:00 Unai Ormaetxea/Alex Txikon 'Mundu bat motxilan' 'Berriz prest' sari banaketa
ABENDUAK 4, 16:30 Sagutxo tuntuna
ABENDUAK 4, 18:30 Erlauntza filma
ABENDUAK 6, 18:30 Erlauntza filma

ZALDIBAR
ABENDUAK 4, 19:30 Itxiera ekitaldia

ZORNOTZA
AZAROAK 26, 18:00 'Mundu bat motxilan' liburuaren aurkezpena, Alex Txikonegaz eta Unai Ormaetxeagaz, Zornotza aretoan
AZAROAK 27, 19:00 'Ez da kasualidadea' bertso saioa Eta abar Zornotzako bertso eskolaren eskutik. (Frontoian)
AZAROAK 28
Umeentzako tailerrak Zelaieta zentroan. 11:00etan Euskaraz ez dakiten gurasoentzat. 12:30etan euskaraz dakiten gurasoentzat.
AZAROAK 28, 19:00 'Euskañolitis'. Oihan Vegaren bakarrizketa Zelaietako kontzertu gelan
AZAROAK 29
Umeentzako tailerrak Zelaieta zentroan. 11:00etan Euskaraz ez dakiten gurasoentzat. 12:30etan euskaraz dakiten gurasoentzat.
ABENDUAK 2, 19:00 'Martintxok 'Txo' galdu zuenetik', ipuin-kontakizuna Koldo Amestoyren eskutik. Helduentzako. Zelaietako kontzertu gelan.
ABENDUAK 3, 19:00 'Hil kanpaiak' euskarazko filma, doan. 19:00etan Zornotza Aretoan
ABENDUAK 4, 'Euskaraldia: Bizipenak edota espektatibak' bideo lehiaketaren sari banaketa (Zelaietako Auditoriumean). Oinarriak: www.ametx.eus / www.amorebieta-etxano.eus



HIL KANPAIAK
BILKUPENAREN MURTO

Zine- ma

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• Hil kanpaiak
barikua 27: 19:00

:: Durango
ZUGAZA

• Érase una vez...
barikua 27: 19:00
zapateria 28: 17:00/19:15
domeka 29: 17:00/19:15
astelehena 30: 17:00/19:15
martitzena 1: 19:00
eguztena 2: 18:00
• De Gaulle
barikua 27: 19:00
zapateria 28: 18:30
domeka 29: 18:30
astelehena 30: 18:30
martitzena 1: 19:00
eguztena 2: 18:00
• Las hijas del Reich
barikua 27: 19:00
zapateria 28: 17:00/19:15
domeka 29: 17:00/19:15
astelehena 30: 17:00/19:15
martitzena 1: 19:00
eguztena 2: 18:00

:: Elorrio
ARRIOLA

• Hil kanpaiak
zapateria 28: 19:00
domeka 29: 19:00
astelehena 30: 19:00

:: Zornotza
ARETOA

• El club de los divorciados
zapateria 28: 19:00
domeka 29: 19:00
astelehena 30: 19:00
• Los Fixies contra los Crabots
zapateria 28: 12:00
domeka 29: 12:00



ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

Orain Abadiñoko Eroskin ere eskuratu dezakezu zure Anboto!





Aitor Echarte Merino

Aktorea eta Gazte
Konpainiako kidea
Durango | 1990

ez naiz arduratzen aktore lanagaz bakarrik, eta horrek mundu oso bat zabaldu dit parez pare. Eta hori oso polita da, hortik asko ikasi daiteke eta.

“

Otsailera arte lan asko izango dut. Hau zoramena da, orain sei hilabete ez nuen lanik eta begira orain

—

Zelakoa izan da oholtzara bueltatzea?

Itzela izan da. Obra bi egin ditugu jada, eta hirugarrena agendan dugu. *Ubú, rey de las finanzas* oso dinamikoa da, eta fisikoki paliza bat, baina lehenengo emanalditik igarri nuen estreinuak sentazio hori. Sortze prozesuan bizitakoak etorri zitzaizkidan burura. Abenduaren 8ra arte egongo gara obra honegaz. Gero, konfinamenduari buruzko bategaz ibiliko gara. Itxialdia abiapuntu lez hartuko du, baina beste ikuspuntu batekin egin gura izan dugu. Testua irakurrita, oso obra ona izango delakoan gaude. Orain erronka geurea da, testuko guztia taulara eraman eta publikoak ulertzeko moduko lan bat egin gura dugu. Gure inguruan ikusmina sortzen dabil. Otsailera arte lan asko izango dut. Hau zoramena da, orain sei hilabete ez nuen lanik eta begira gaur egun!

"Hilabeteen obra bera antzeztu ahal izatea sekulakoa da, antzezlanari hazten laguntzen dio eta"

Aitor Echarte aktore durangarra 'Ubú, rey de las finanzas' antzezlana eskaintzen dabil gaur egun Gazte Konpainiaren pabilioian

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Aitor Echarte durangarrak pasioz bizi du antzerkigintza, eta horrela berba egiten du egun bere ofizioa denaz. Gazte Konpainiako kidea da 2019tik hona, eta 'Ubú, rey de las finanzas' obrarako castingean aukeratu zuten. Pabilioi 6k ipini zuen martxan Gazte Konpainia, 2015ean, gazteei antzerkigintza profesionale-ra hurbiltzen laguntzeko asmoagaz. Udaberrian, baina, behin proiektua egonkortuta, euren kabuz jarraitze-ko aukera eskaini diete konpainiako kideei. Erronka handiari tamainako ilusioagaz eutsi dio Echartek, beste hamahiru kidegatz batera.

Zelan doa konpainiaren fase berria?

Lan karga izugarriagaz. Lan mordo-
do dugu, baina ez gara kexatzen. Goizetan obra bat prestatzen egon gaitzke, arratsaldetan beste bat, eta eguenetik domekara hirugarren obra bat antzezten gaude. As-
telehenetik domekara, 10:00etatik 22:00etara pabilioian egoten gara. Jakitun gara ez direla sasorik onenak, baina, hala ere, ea beldurrik ez dudan galdetzen didatenean ezetz erantzuten dut; nik dudana ilusioa da. Maiatzean ez neukan ezer. Eta bat-batean, aukera bat dugu, lan pilo bat sortzeko, leku

bat entseatzeko eta gure lanak aurkezteko... Hilabeteen obra bera antzeztu ahal izatea sekulakoa da, antzezlanari hazten laguntzen dio eta. Lehetuta gaude, baina oso pozik. Handitzen doan elur bola baten modukoa da Gazte Konpainia. Sei antzezte baino ezin dira kontratatatu, eta aurtengo deialdira ehundik gora lagunak eman dute izena, pentsa!

Zu ere castingaren bitartez sartu zinen, ezta?

Bai, 60 bat lagun aurkeztu ginen, eta gero masterclass lako bat eduki genuen Andres Lima aktoreagaz. Asteburu batean izan zen eta hori izan zen castingaren amaierako fasea. Hortxe aukeratu ninduten. Bat-batean, aktore moduan lau hileko lan ordaindua nuen, sortze prozesu luze batean murgildu nintekeen eta Ramon Bareak zuzendu ninduen. Egundokoa izan zen ikustea obrak kolorea hartzen zuela eta hazten zihoala. *Oficios entre bambalinaseko* kideekin ere lan egin genuen, eta hor sortu zena ikaragarria iruditu zitzaidan. Atrezzoaz, ile apainketaz, makillajeaz eta azpiegituraz-eta arduratzen dira, besteak beste, eta sortze prozesuan parte hartzen dutenez, asko ikasten da hortik ere. Egoe-

“

Egoera ona izan ez arren, ea beldurrik ez dudan galdetzen didatenean ezetz erantzuten dut; nik dudana ilusioa da”

—

ra duin batean lan egiterakoan, gainera, ikusten da zer egin daitekeen. Industria sortzeko pauso bat da hau, nola funtzionatu beharko lukeen ikusteko, eta sarea sortu eta handitzeko aukera ere bada. Behar bat dagoenean, behar hori egiten dakien jendeagaz lan egin da, beste dimentsio bat hartzen du proiektuak. Gazte Konpainian



Aitor Echarte.

Eneritz Furyak eta Natali taldea Platerueneko oholtzara igoko dira

Abeslari irundarrak gaur eskainiko du kontzertua; Natali domekan ikusi ahalko da



Eneritz Furyak.

MUSIKA • A.M.

Redstone Soluk zikloaren barruan, Eneritz Furyak abeslariak kontzertua eskainiko du bariku honetan Plateruenean. Musikari irundarrak ahots berezi eta pertsonala du eta modu honetara definitzen du bere burua: "Heterodoxoegia folk konbentzionaleko ikuspegi hertsiaientzat, popetik ez da urrunegi, baina punka da osagai ezinbestekoa kantuetan". Eneritz Furyak eta Zaldi zuria / Mas-kara izeneko diskoak plazaratu ditu aurretik, eta lan berria kale-ratzekotan da Furyak. 19:00etan hasiko da bere emanaldia.

Pop eta rock doinuetaetik hurbilago dago Natali boskotea. Natali Izagirrek 2017an ipini zuen martxan proiektua, Estatu Batuetatik bueltatu eta gero; Ixak Arruti, Gorka Mendizabal, Andres Insua, eta Olaia Inziarte dira gainerako taldekideak. 2019an *Garena* lehenengo lan luzea kaleratu zuten eta bigarren lana izango dena prestatzen

Folk doinuetaetik hurbil dago Eneritz Furyak; Natali, oster, hurbilago dago popetik eta rocketik

dabiltza orain. 19:00etan hasiko da kontzertua.

Hamabi urteko zikloari agur Azaroaren 20an Jam Session saioa egin zen Plateruenean, azken hamabi urteko elkarlanaren ondoren. "Kolpe izugarria da guretzat horrelako kulturgune batek ateak ixtea", azaldu dute antolatzaileek. 2008ko azaroaren 27an egin zen lehenengo Jam Session saioa Plateruenean. Osasun larrialdi egoeragaitik ezarritako neurrietara egokituta, jazz kutsuko saio hauek jendez lepo agurtu zuten kulturgunea.

Xabier Amurizaren koplekin osatuta, Korrontzik disko berria kaleratu du: 'Koplariak'

'Koplariak' Korrontzi talde bizkaitarraren ibilbideko hamargarren lana da; Elkar argitaletxeagaz argitaratu dute



MUSIKA • A.M.

Korrontzi musika taldeak bere ibilbideko hamargarren diskoa kaleratu du oraintsu. Korrontziko Agus Barandiaranen eta Xabier Amurizaren hiru urteko hartu-emanaren fruitua da *Koplariak* diskoa. Lana disko-liburu formatuan kaleratu dute, Elkar diskoetxeagaz. Liburuak Xabier Amurizaren koplak eta hauen azalpenak biltzen ditu. Hamargarren lan honetarako, Korrontzik ildo aldaketa egin du. DJ Makalagaz batera, euren ibilbideko berrikuspen elektronikoa egin zuten aurreko lanean. Oraingo

honetan, folkaren eta musika tradizionalaren mundura bueltatu dira.

Ahotsenean aurkezpena Korrontzik eta Xabier Amurizak hamabi emanaldi dituzte finkatuta. Abenduaren 23an hasiko dute *Koplariak* diskoaren aurkezpen bira, eta apirilaren 10era bitartean jarraituko dute emanaldiak. Lehenengo emanaldia Durangon egingo dute, abenduaren 8an, Ahotsenean. Ordu erdiko emanaldia izango da eta musikariez gainera Amurizak ere igoko du oholtzara.

Gai librean

Bakarrik bizi garenon kluba

Bizikidetza unitatea = 1.
Bizikideak = 1.
Isolamendua erabatekoa.
Ongi etorri bakarrik bizi garenon klubera.
Isolamendu sentsozialak garuna atrofiatzen du. Ez diot nik, neurologoek eta psikiatrek frogatutako tesia da. Eta ez itzazue garunak ustezko adin-tarte babesgarriagoen eskala asmatu baten arabera mailakatu: umeak, nagusiak, nerabeak, helduak. Ez al gara denok pertsonak? Ez al gaude denok elkarlotuta?
Bada azken aldiko errelato kolektiboen artean inon irakurri ez dudan talde bat, hau ere ezinbesteko ahots bat pandemia honen kontakizun anitza osatzeko: bakarrik bizi garenon kluba. Osasuntsu gaude. Lanerako izaki fun-



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Isolamendu sentsozialak garuna atrofiatzen du. Ez diot nik, neurologoek eta psikiatrek frogatutako tesia da

Bada ezinbesteko ahots bat pandemia honen kontakizunerako: bakarrik bizi garenon kluba

tzionalak gara. Helduak. Autonomoak. Etiketa gehiago gabe, zaurgarriak bere horretan.
Pertsonala eta politikoa den titular bat opari: «Udaberriko itxialdia gogorra izan baldin bazen, udazken hau are gogorragoa izaten ari da». Ordena berriak hartu ditu kaleak oharkabeen. Konturatzerako bikoteak bikoteekin

batzen dira. Umedunak umedunekin. Bakarrik bizi garenok bakarrik bizi garenokin.
Pertsonala eta politikoa den spoiler bat aldarri: singularrok ez dugu soilik singularrez osatutako plural bat nahi.
Negua igaro aurretik familia eredu tradizionalaren indartzeaz hitz egin nahi dugu. Salbuespen egoera honen ondorioz gero eta indartsuago bihurtzen ari den normatibitateaz. Diskurtsoez eta praktikez.
Garai aproposa da harremanen erakuntza tradizionala zalantzan jarri eta beste modu batera saretzeko. Paretik. Elkar zaintzeko. Mandatu berriak praktikara eroateko.
Batzuoi ahaztu egiten zaizue, agian zuen konpainien burbuiletan babestuta erosoagoa delako, baina hemen denok osatzen dugu bakarrik bizi garenon kluba.

Gurutze Frades iurretarra prest dago munduko txapelketa berri eta anbiziotsuan onena emateko

Astelehenean Floridarantz (AEB) abiatuko da eta abenduaren 6an parte hartuko du proban; ohi baino distantzia laburragoetan arituko denez, prestaketa moldatu du, saio laburragoetan eta intentsoagoetan zentratuz

TRIATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Gurutze Fradesek esperientzia handia du munduko txapelketetan, baina abenduaren 6an Floridan (AEB) lehiatuko duena berezia izango da, hainbat arrazoiengaitik. Batetik, antolatzaileengaitik: Ironman markari aurre eginez, egutegi propioagaz triatloien plazara indartsu sartu den PTO triatlota profesionalen erakundeak —USA Triathlon erakundeagaz batera— antolatutakoa izango da. Bestetik, probaren kokapena berezi-berezia da: Daytona autodromoa, auto lasterketa mitiko bi, Daytonako 500 miliak eta Daytonako 24 orduak, hartzen dituen azpiegitura erraldoia.

Lasterketako distantziak ohi baino laburragoak dira Fradesentzat; Ironman probetako distantzien erdia: kilometro bi igeri, 80 bizikletan eta 18 korrika. Hori dela-eta, azken urteetako prestakuntza, distantzia luzeetara bideratutakoa, moldatu egin behar izan du. "Orain arte, bolumen handiko entrenamenduak saio laburragoekin uztartu ditut. Orain, abiaduran eta intentsitatean oinarritutako saioetan zentratu naiz batez ere".

Gorputzak ondo erantzun dio prestaketa berriari. "Beste mota bateko nekea da, baina gorputzak ondo eutsi dio intentsitate handi horri eta saio denak aprobetxatu ahal izan ditut", adierazi du.



Gurutze Frades, irail amaieran Bilbon lehiatutako Espainiako triatloi txapelketan.

Beraz, astelehenean sasoi betean hartuko du hegazkina, Floridarantz abiatzeko. Arazoa da probako maila izugarri handia izango dela. "Aurtengo lasterketarik inportanteena ez ezik, azken urteetan egin den garrantzitsuena dela iruditzen zait. Distantzia luzeko eta olinpiko onenak batuko dira. Sekula ere ikusi ez den moduko maila egongo da", adierazi du. Horregaitik, 25-30 onenen artean sailkatzea "oso lasterketa ona" egitea litzatekeela uste du eta horretan ahaleginduko da.

"Oso arin korrika egiteko moduan nago. Arazoa da han triatlota denak ibiliko direla arin"

"Azken urteetan egin den probarik garrantzitsuena izango dela iruditzen zait. Sekula ere ikusi ez den moduko maila egongo da"

Igerian aurrekoak bistan mantentzea da helburua, denbora larregi ez galtzea. Bizikletako tarte eta, batez ere, korrika egitea dira bere espezialitateak. "Oso arin korrika egiteko moduan nago. Arazoa da han denak ibiliko direla arin", gogoratu du.

Erakunde berriari buruz

Triatlota profesionalen erakundea 2014an sortu zuten, triatloiari hauspo berri bat emateko eta triatloiari profesionali tratatu justuago bat emateko helburuz. Harrezkero,

Auto lasterketako autodromo mitikoa triatloilarien zerbitzura

Munduko onenak nor baino nor gehiago arituko dira, baina ez da motor hotsik entzungo. Asteburu batez, triatloilarien tenplua bihurtuko da Daytona autodromoa. Obaloaren barruan 73 hektareako azpiegitura erraldoia dago, 12 hektarea dituen Lloyd izeneko laku propio eta guzti. Triatloilariak hantxe egingo dute igeri, eta ondoren obaloan arituko dira bizikletan eta korrika. Gora-beherarik bako ibilbidea denez, ohi baino denbora hobeak ikusi ahaliko direla uste du Fradesek.



asko hazi dira. Diru asko eta baliabideak lortu dituzte hainbat bidetatik eta egutegi propioa prestatu dute.

Gurutze Fradesi gustatzen zaio orain arte ikusi duena. "Gure ogibide profesionalari forma eman gura diote. Esaterako, amatasun baja sustatuko dutela esan dute eta Floridara joateko bisatuak denbora dezente aurretik kudeatu dizkigute", esan du. Sarietan ere badago alde. Floridako proban milioi bat eurotik gorako sariak banatuko dituzte parte hartzaileen artean.

Elorriok galdu barik zegoen Athletic ahaltsua menderatu du eta bigarren tokian dago orain futboleko Euskal Ligan

Aurretik jokaturako partidu bietan 16 gol sartuta zetorren Athleticetik ezin izan zuen elorriarren defentsa gotorra eraitsi; bigarren zatiko azken txanpan, Ainara Juaristik sartu zuen hiru puntuak batzeko balioko zuen partiduko gol bakarra

FUTBOLA • J.D.

Athletic taldeko jokalariek ez daude partidua galtzera ohituta, baina joan zen asteburuan amore eman behar izan zuten Elorrioren: 1-0. Defentsan gotor eta kontraerasoan zoli, elorriarrek partidu praktikoa eta eraginkorra jokatu zuten eta hiru puntuak batuta sailkapeneko bigarren tokian daude orain.

Athleticen eraso jokoari eusteko (16 gol aurreko partidu bietan) eta aurkariak baino arma xumeagoak zituela jakitun, Aitor Azpitarte entrenatzaileak posizio-jokoa planteatu zuen. Eutsi eta eutsi, eta baloia osten zutenetan, ziztada eman; horixe zen plana, eta bigarren zatian fruituak eman zituen. Nerea Gonzalezek

hegaletik luze erdiratutako baloia errematatu eta partiduko gol bakarra sartu zuen Ainara Juaristik.

82. minutua zen eta Athleticetik ez zuen kolpe horretatik errekeratatzeko astirik izan.

Garaipenak moral handia eman dio taldeari, Azpitarteren esanetan; are gehiago, lesioengai-



Elorrio futbol taldeko jokalariek entrenamendu batean.

tik, ikasketen eraginez eta beste kontu batzuegaitik jokalariz urri dabilzan sasoian. Hutsuneak betetzeko, bigarren taldeko hainbat jokalarik lehenengo taldeagaz entrenatzen dabilta, Bizkaiko ligak geldidutakoak aprobetxatuta.

Jokalariz urri hasi dute denboraldia, eta bigarren taldeko hainbat lehenengo taldeagaz dabilta

Aurtengoa liga arraroa da eta ez COVID-19aren eraginagaitik bakarrik. Euskal Ligako taldeak multzo bitan banatu dituzte: lehenengo laurak igoera fasera sailkatuko dira eta gainerakoak ez jais-teko borrokatuko dira. Multzorik gogorrean, "mailari eustea" da Elorrioren helburua, baina "ezer baztertu barik", Azpitarte entrenatzaileak azaldu duenez.

Durangalde Beti Reala, futbol ligako liderrari eskualdetik hauspoa ematen dion lagunartea

Sentimendu txuri-urdinak lagunarte berri batean batu ditu eskualdeko realzaleak; maiatzean sortu zuten taldea

FUTBOLA • J.D.

Sasoi ona da Realarentzat. Errege Kopako finalaren zain, liga txapelketako liderra da eta Europa Leaguen bizi-bizirik jarraitzen du. Zaleak gozatzen dabilta taldearen ibilbideagaz. Durangaldean ere realzale ugari dago eta eurentariko hainbatek lagunarte bat sortu dute aurren, sentimendu txuri-urdina lau haizetara zabaltzeko: Durangalde Beti Real. 75 bazkide ditu eta eurentariko erdiak Realeko bazkide ere badira.

Durango realzaleak aspalditik batzen dira Ibaizabal tabernan, partiduak elkarregaz ikusteko. Hantxe mamitu zen lagunartea sortzeko ideia. Baina ez ziren asmo horretan zebiltzan bakarrik. "Abadiñon ere realzaleen talde bat sortzeko asmoa genuen. Bagenekien Durangon zertan zebiltzan eta pentsatu genuen bakoitza bere aldetik baino hobe zela denok bat egitea", gogoratu du Ibai Urien abadiñarrak eta lagunarteko kideak.

Hainbat herritako realzaleak batu dira: Durangokoak eta Abadiñokoak batez ere, baina baita Elorriokoak eta Iurretakoak ere, besteak beste. Oraindino ez daukate egoitza ofizialik, baina bila dabilta, etorkizunean bilgune ofizial bat edukitzeko.

Lagunartek 75 bazkide ditu eta eurentariko erdiak inguru Realeko bazkide dira

Euskara eta ikuspegi soziala

Lagunartearen sorrerak pandemiaren erdian harrapatu ditu eta oraingo ezin izan dituzte gauzatu buruan zituzten ideiak. Etorkizunera begira, partidu inportanteetan, derbietan esaterako, kalean giro sanoa sortzeko asmoa dute, baina euren ikuspegia futbolaz haratago doa, Manu Carrasco lagunarteko presidentek kontatu duenez. "Gauzak

egin gura ditugu. Esaterako, emakumeen Athletic-Real ongintzazko partidu bat antolatzea izan daiteke aukeretariko bat eta batutako dirua Gobernu Kanpoko erakunde bati ematea", esan du. Urienen esanetan, "euskara sustatzea" izango da euren beste lan ildoetariko bat. Etorkizunean, egoera hobetzen denean, Rea-

Ongintzazko partiduak antolatzen eta euskara sustatzen ere jardun gura dute etorkizunean

le Arena futbol zelaira elkarregaz joan gura dute, Realaren partiduak bertatik bertara bizitzeko.

Arbionesi eskerrak sortutako lagunartea



Orain aste bi, Angel Arbiones hil zen, lagunarte berriko bultzatzaile nagusia. Legazpiarra jaiotzez, Durangon bizi zen eta 64 urte zituen. Realzale "amorratua" eta Ibaizabal tabernan batzen zen betikoetarikoa zen. "Orain urtebete inguru partidu bat ikusten geundela, lagunarte bat sortzeko ideia bota zuen. Ideia hortxe geratu zen, baina, harrezkero, behin eta berriro errepikatzen zuen ideia", adierazi du Manu Carrascok.

Azkenean, bere ingurukoak konbentzitu zituen eta aurrera egitea erabaki zuten. "Ondoren, bera ibili zen paperak egiten eta baimenak eskatzen. Lan handia

egin zuen. Argi dut beragaitik izan ez balitz seguruenik ez zela lagunarte berri hau existituko. Gure artean txoko berezi bat izango du betiko", onartu du Carrascok.

Egoera hobetzen denean, Arbiones gogoratzeko omenaldiren bat antolatzeko asmoa dutela azaldu du.

Realeko bazkidea zen eta etxeko partiduak Anoetan —gaur egungo Reale Arena— ikusten zituen. Kanpora ere joaten zen. 2013ean Realak Manchester United-en kontra Europa Leaguen jokotutako partidua bertatik bertara ikusi zuen, Old Trafford zelai mitikoan.



Kluba sortzeko prozesuan orain urtebete egindako batzarretariko baten irudia.

Jokaldia

Kirola mozalarekin?

Orain, aire librean ere derrigorra da mozala ipinita kirola egitea herri barruan bagaude. Korrika egitea, esate baterako. Bada, nire ustez, zentzurik bako arauen artetik honetxek irabazi du orain arteko astakeriarik handienaren 1. saria. Burutik eginda gaude? Bizitzeko, oxigenoa behar dugu biriketean. Birikek, gero, odolera bideratzen dute oxigeno hori, gorputzari behar duen energia emateko. Kirola egitean, zenbat eta gehiago gorputza estutu eta zenbat eta gehiago bete hauspoa, orduan eta lan gehiago egiten dute giharrek, eta, beraz, oxigeno gehiago kontsumitzen du gorputzak, eta karbono dioxido gehiago sortu. Halakoetan, arnasa gehiago hartu behar dugu, arnasbideak libre izan behar ditugu, baina mozalak biak tapatzen dizkigu, sudurra eta ahoa, eta



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Kirolerako mozala derrigortzea salatzen modukoa da, baina ez, mozalik barik kirola egitea da salagarria

Berez egoera latza bada, agintariek latzago egiten dute halako arau ulertezinak aginduta

horrela nekez arnastuko dugu ondo, gutxiago kirola egitean. Itotzeko ere! Mozala kirolerako derrigortzea salatzen modukoa da, salatu beharrekoa, baina ez, mozalik barik kirola egitea da salagarria. Gauza aldrebesagorik! Aire librean, mozalak ez du ezertarako ere balio. Kanpoan kutsatzeko arriskua hutsala da (datu eta ikerketa guztiek diote hori), eta mozala aire


librean derrigorrez ipintzeko arau edo legeak ez du inongo ebidentzia zientifikoko sendorik. Naturaren kontra gabilta, osasuna galtzen eta sistema immunologikoa makaltzen, gogortzen barik. Eta horixe da garrantzitsuen birusen aurrean: fisikoki eta mentalki indartsu egotea. Baina agindu diguten bidetik joanda, egoera ezer ere ez hobetzeaz gainera, ahulago, tristeago, defentsak baxuago eta bizipoza galduta ibiliko gara, eta horrek bidea erraztuko dio birusari.

Berez egoera latza bada, agintariek latzago egiten dute halako arau ulertezinak aginduta. Bien bitartean, osasun langileak, hezkuntzakoak, erresidentzietakoak eta abar oinarritzak eskatzen dabilta, baliabide gehiago pandemiari aurre egin ahal izateko, baina agintariek entzungor egiten diete. Nahiago dute dirua AHTrako gorde. Besarkada handi bat ostalariei.

DURANGALDE

Andra Mariko Basilika

Uribarriko Andra Mariko Basilika XIV. mendeko eraikuntza da. Estilo gotikokoa da batez ere, eta elementu errenazentistak ere baditu. Zutaberi bako elizpe ederra du, mota horretako handiena Europan. Elizan erretaula ikusgarria du. 1937ko martxoaren 31n, faxisten bonben helburu izan zen eliza. Erasoan hainbat lagun hil zen.



KO TXOKOAK!




Untzillatx

Goizean goizetik mendira joateak badu bere saria: Untzillatxetik egunsentia ikustea, adibidez. Anbotoko mendilerroaren hirugarren puntarik altuena da. 941 metro ditu. Igoera malkartsua duen arren, pareje ederra da. Hori bai, euria eginez gero, inguru labankorra da.



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



DURANGO
J.M. ALTUNA: Pisua erdigunean, Jesuiten ikastetxeren ondoan. 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Ganbara. CEE: F
215.000€



IURRETA
IURRETA: Komuna eta sukalde-jangela. Igogailua. CEE: G
115.000€



DURANGO
MADALENA: Apartamentua. Logela, komuna, sukaldea eta eskegitokia. 19m2-ko ganbara, etxebizitzagaz bat egiteko aukeragaz. CEE: E
168.500 €



DURANGO
ARAMOTZ AUZUNEA: 3 logela. Komun berria, sukaldea eta egongela. Berriztatua. Eguzkitsua. Igogailua ipintzeko aukera. CEE: F
125.000 €



DURANGO
ARTEKALE: 3 logela, 2 komun, sukalde handia eta egongela handia. Terraza. Trastelekua. Bizitzera sartzeko moduan. CEE: F
198.000 €



MATIENA
Matiena: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. Alokairuan, erosteko aukeragaz. CEE: E
600€ / 170.000 €



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Txibitena kalea. 4 logela. Logela guztiek kalera ematen dute. Komuna, egongela eta despentsa. Garajea eta trastelekua.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

//ABADIÑO

ABADIÑO: Torresolo kalea. 3 logela. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.

TORRESOLO: 3 logelako etxebizitza ederra. Guztiz berriztatua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

//BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

//ATXONDO

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeko. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: Aldegoiena auzoa. 7.500 m2. Baserri ederra, leku lasaia eta baketsua.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bi bizitzako baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO
20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifi-a barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
ARAMOTZ: Saloia, sukaldea jantzita, 3 egiteko aukera eta komuna. Kanpoaldera begira. Argitsua (Ipar aldera/Hego aldera). Igogailua ipiniko dute laster. Garajea aukerazkoa. Bizitzera sartzeko moduan. C.E.E: Bidean.
129.500 €



DURANGO
ARAMOTZ: 3 logela, egongela, sukaldea eta komun berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Laster igogailua ipiniko dute. C.E.E:E
125.000 €, Garajea aukeran



DURANGO
SASIKOA: 2 logela, sukalde jantzita, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 28 m2-ko garajea eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua. C.E.E:E
229.000 €



MATIENA
TRAÑAETXOSTE: egongela, sukalde jantzita (berria) eta komuna (berria). Etxe osoak kanpora ematen du. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. C.E.E: Bidean.
180.000 €.



ZALDIBAR
EUSKAL HERRIA ETORBIDEA: 60 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzita eta komuna. 6 m2-ko trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Alokairuan, erosteko aukeragaz. C.E.E: F.
95.000 €



MUNTZARATZ
ARLOZABAL: 3 logela, egongela, sukalde jantzita eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Eguzkitsua. Igogailua. C.E.E: E
200.000€



Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 4 logela, sukaldea, garbitokia eta 2 komun. Ganbara. Igogailua eta garaje itxia. **320.000 €/E.E.E=E**

AMBROSIO MEABE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. LEHEN **205.000 € / ORAIN 198.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

ERRENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Bi bizitzako etxea eraikitzeko 600 m2-ko lurzorua. **640.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. LEHEN **390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. LEHEN **342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**

URKIOLA AUZOA: 3 logela, sukalde-egongela-jangela eta 5 komun. Ganbara. Garajea. Lursailagaz. **285.000 € / ORAIN 248.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 € / E.E.Z=G**

//BERRIZ

ANDIKONA AUZOA: Berreraikitze baserria. 460.000 €.

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

ERROTATXO KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z =G**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. LEHEN **650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN **276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN **200.000 € / ORAIN 168.000 € / E.E.Z=F**

TRAÑABAREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN **220.000 € / ORAIN 210.000 € /E.E.Z =E**

//BERRIAK

OTXANDIO
ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z= G.**

Botikak

BARIKUA, 27 · 09:00-09:00	ASTELEHENA, 30 · 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 28 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	MARTITZENA, 1 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
09:00-13:30	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	09:00-22:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 2 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	EGUENA, 3 · 09:00-09:00
09:00-22:00	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 29 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, **Izadi (829. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Aner!** Azaroaren 22an bost urte egin dituzu. Jarraitu zaren modukoa izaten, txapel-dun!



Zorionak, guapa! Besarkada bero bat Ibon, Inhar eta Eiderren partez. Ondo pasatu. Maite zaitugu.



Abenduaren 2an **Luciak** 12 urte egingo ditu. Ondo pasa eta gozatu zure eguna. Zorionak eta musutxu asko Durangoko familiaren partez.



Zorionak, **Ekai.** Gasteizko aitite-amamen, osaben eta birramama Natiren partez! Muxu handi bat, besarkada eta guzti!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 17° / 7° ☁️	ASTELEHENA 🌧️ 16° / 5° ☁️	EGUAZTENA 🌧️ 13° / 4° ☁️
DOMEKA 🌧️ 18° / 6° ☁️	MARTITZENA 🌧️ 14° / 4° ☁️	EGUENA 🌧️ 13° / 7° ☁️



SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAH ENKARGUZ
Gutxienez 15 lagunekoa taldeentzako





Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTSAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri:

📞 688 773 205 / 688 734 329

✉️ #etorritadastau #unezailetanerezureondoan





Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



“Momentuko gogoaren arabera sortzen ditut ilustrazioak, bizipenetatik abiatuta”

Udatik hona, Irati Bazetak berak sortutako ilustrazioekin oihalezko poltsak ipintzen ditu eskuragarri sare sozialen bitartez



Irati Bazeta Agirre
Ilustrazioak
egiten ditu
Abadiño | 1999

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI
Irati Bazetak ilustrazioekin apaintzen ditu oihalezko poltsak. Gizarte Hezkuntzako ikasketek eta lanak uzten dioten denbora baliatzen du ilustrazioak sortzeko, gura lukeena baino gutxiago. Hala ere, marrazketa ez baztertzeko hartutako konpromiso pertsonalari eutsi gura dio.

Nondik datorkizu ilustraziorako zaletasuna?

Txikitatik gustatu zait marraztea. Pintura eskolak hartu nituen umetan, eta batxillergoan ere zenbait ikasgai artistiko egin nituen. Hala ere, Gizarte Hezkuntzako ikasketak hastean apur bat alboratuta utzi nuen, orain urte bi inguru berriro ilustrazioekin hasi nintzen arte.

Konpromiso pertsonal lez hartu nuen, berriro margotzen hasteko, jarraipen batez. Margotzea zerbait kontatzeko modua da, barruan dudana kaleratzeko baliatzen dut ilustrazioa. Denok dugu zer kontatu eta denok dakigu margotzen.

Zelan definituko zenuke zeure lana?
Momentuan dudan gogoaren arabera sortzen ditut ilustrazioak, neure bizipenetatik, neure ideietatik abiatuta. "Barrutik kanpora margotzen", esaldi horregaz deskribatzen dut egindako lana. Bestalde, ikuspegi hezitzailea ematen ahalegintzen naiz, ikuspegi soziala eta feminista. Apur bat baztertuta izan dudana Euskal Herriko emakumeen ilustrazioen bildumagaz jarraitu gura dut orain. Sorginekin hasi nintzen,

eta gero Josefina Lambertoren ilustrazioa ere egin nuen, Maravillasen istorioa kontatu guran. Askotan nazioartera jotzen dugu erreferente bila, baina Euskal Herriko emakume askoren lana ez dugu ezagutzen. Hori bistaratu gura dut.

Zerk inspiratzen zaitu?
Bizipenek, inguruko paisaiek,

“Poesia eta ilustrazioa batuko lituzkeen lanen bat egitea gustatuko litzaidake gehien”

musikak, poesiak, irakurri dudana zerbaitek... Nahinon topatu daitekeen inspirazioa.

Zeuk ilustratutako poltsak eskuragarri ipini dituzu. Nolatan hasi zinen?
Paperean egin izan ditut ilustrazioak, baina poltsekin aukera berri bat ikusi nuen. Baliteke ilustrazioa horman eskegitzeko horietarikoa ez izatea, eta gurago izatea zerbait dioten oihalezko poltsa. Margotzea gustatzen zait eta prozesu guztia eskuz egitea da helburua. Poltsa bakoitzari denbora bat eskaini behar zaionez, neure erritmora lan egiten dut. Helburua margotzea da, ez poltsak saltzea. Udan hasi nintzen, konfinamendua amaituta, eta harriera ona izan dute. Pozik nago.

Baduzu erreferenterik ilustrazioaren munduan?

Ilustratzaile askori jarraitzen diet, asko gustatzen zaizkit. Baten bat aipatzearren, Ane Pikazaren estiloa asko gustatzen zait, baita Paula Bonetena eta Adolfo Serrarena ere. Irati Eguren ere oso gauza politak egiten ditu. Gustatzen zait lan desberdinak ikustea. Guztiek zerbait dute kontatzeko eta euren ilustrazioekin identifikatuta sentitzen naiz.

Etorkizunean ilustratzaile moduan ikusten duzu zeure burua?

Gizarte Hezkuntza eta artea uztartzen dituen zerbaitetan lan egin gura nuke. Ez dut hezkuntza baztertu gura. Arteak aukera asko ematen ditu: emozioak kudeatzeko, kontzentratzeko, lasaitzeko, berbaz esaten ez dakigun hori adierazteko... Oso tresna ona da hezkuntzarako.

Zein lan egingo zenuke gustura?

Poesia idaztea asko gustatzen zait. Bada, poesia eta ilustrazioa batuko lituzkeen lanen bat egitea gustatuko litzaidake gehien.

Katalamixon aisialdi elkartean ere bazabiltza lanean.

Bai, 15 urteaz hasi nintzen eta oso gustura nabil. Komunitatea garatzeko eskola baino tresna gehiago ematen ditu aisialdi hezitzaileak.

Lauhortza

Markel Sanchez
Zelaia
Behargina



Gutuna Anttonio's tabernara

Rokanrolak hil behar gintuen eta zu hil zara. Pertsonokin pasatzen den moduan, zu ere abiatu barik joan zara, agurtzeko aukera barik. Ez dakidanez nora, 1.500 karaktereko zutabe honetatik idatzi gura dizut, zure 17 metro koadroetan kabituenaren zati txiki bat kabituko delakoan.

Goienkalen ohikoak ez diren notak entzunda hurreratu ginen zure martxara, gustuko doinuak eta doinu berriak entzuterat: mugitzeko leku barik jotako kontzertuak, kaleko musika pintxadak, bertso saioak, argazki erakusketak, mikro-antzerkiak komunean. Eta Rokanrola, beti. Goienkaleko gune estueneko zulo ilunenak argitu izan du kalea sarritan, kulturaren fokuekin; musika eskatzeko, musika entzuteko eta baita musika egiteko lekuak ere. Garagardo botila handiak 2 eurora zeudela-eta, barra izkina bete genuen askok: ametssez, konspirazioz eta teoria absurdo edo distiratsuz bete gainera. Herri-mugimendu askoren aliatua izan zarelako, lagun talde batek irabazi asmo barik Goienkalera zerbitzatu: herria eskatzeko, herria entzuteko eta baita herria egiteko ere. Batez ere euskaraz egitekoa, izerdi eta tabako usaineko giro kargatu hori arnasgunea ere izan delako. Eta taberna-zuloa izan zara, taberna-zulo ederrena, gaua maite dugunok elkar topatzeko lekuri onena.

Zoriontsu izan zaren lekue-tara ez ei da bueltatu behar, baina bueltatu gurako nuke Durangon tabernaren bat halako filosofiaz martxan egongo den sasoiri. Eta orduan bai, gure toki berri horietan topa egingo dugu: zerbeza bat, rokanrola eta batek daki zer gehiago.



ALB ERDI
HARATEGIA

